

Nazioarteko Behatokia

2024ko azaroa




**BasqueTrade
& Investment**

Agencia Vasca de Internacionalización
Nazioartekotzeko Euskal Agentzia

GRUPO
spri
TALDEA



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**
BASQUE GOVERNMENT





Hiruhilekoaren laburpena

Tentsio globalak areagotu dira

Korea eta Taiwango penintsulako balizko gatazkek eragindako ziurgabetasun globalaz gain, Ekialde Hurbilean eta Europa Ekialdean dauden tentsioak gehitu behar dira.

Europak bere aurreikuspen ekonomikoak mantendu ditu

Europak esperotakoa baino erresilientzia handiagoa erakutsi du eta hazkunde-aurreikuspenak mantendu ditu, moneta-politika egokituz eta inflazioa kontrolatuz.

Asia-Pazifikoaren hazkunde-erritmoa arriskuan dago

Eskualdeko ekonomiak munduko gainerako herrialdeetan baino gehiago jarraitzen du hazten, baina hazkundera moteldu egin daiteke Txinaren desazelerazioarengatik eta gatazka geopolitikoengatik.

Desafio politikoak eta komertzialak Amerikan

AEBko, Mexikoko, Peruko edo Kolonbiako ziurgabetasun-politikoak inpaktua du hazkunde ekonomikoan eta merkataritza-harreman globaletan.

Afrikak eta Ekialde Ertainak hazkundera mantendu dute

Egiturazko erreformek eta dibertsifikazio ekonomikoak hazkundera sustatzen dute, nahiz eta egoera politikoa ziurgabea izan eta gatazka armatuak egon.

Aurkibidea

1. In Focus
2. Ikuspegi orokorra
3. Eskualdeko ikuspegia
4. Herrialdeen fitxak

Basque Trade & Investment cuenta con las autorizaciones necesarias para la elaboración del presente documento y sus anexos con información facilitada por los propietarios de las bases de datos utilizadas al efecto; así mismo, ha obtenido autorización para su difusión únicamente entre los destinatarios de los mismos.

Este documento y documentos anexos son confidenciales y dirigidos exclusivamente a los destinatarios de los mismos. Quedan terminantemente prohibidas la distribución, copia o difusión total o parcial de los mismos por ningún medio salvo a las personas autorizadas para su recepción dentro de la organización.

El destinatario se compromete a no manejar, usar, explotar o divulgar la información confidencial a ninguna persona o entidad por ningún motivo en contravención a lo dispuesto en esta cláusula, salvo que sea expresamente autorizado por escrito a hacerlo.

El uso no autorizado de la información contenida en el documento y sus anexos, así como el incumplimiento del deber de confidencialidad está sujeto a responsabilidades legales reservándose Basque Trade & Investment el derecho de reclamar el resarcimiento de los daños y perjuicios que le pudieran causar como consecuencia de la vulneración de sus deberes por parte del destinatario.

Basque Trade & Investment-ek behar diren baimen guztiak ditu dokumentu hau eta bere eranskinak prestatzeko horretarako erabilitako datu-baseen jabeek emandako informazioarekin; era berean, baimena lortu du dokumentu hau eta bere eranskinak banatzeko bakar-bakarrik bere hartzailleen artean.

Dokumentu hau eta bere eranskinak isilpekoak dira, eta bere hartzailleei bakarrik zuzentzen zaizkie. Guztiz debekatuta dago dokumentu horiek ezein bitartekoren bidez banatu, kopiatu eta osorik edo partzialki zabaltzea, salbu eta antolakunde barruan jasotzeko baimena duten pertsonen.

Hartzailleak hitz ematen du ez duela isilpeko informazioa kudeatuko, erabiliko, ustiatuko edo ezein pertsona edo erakunderi helaraziko ezelango arrazoiengatik klausula honek agintzen duenaren kontra, salbu eta idatziz ematen bazaio horretarako baimena.

Dokumentu honetan eta bere eranskinetan jasotako informazioa baimenik gabe erabiltzeak eta konfidentzialtasun betebeharra ez betetzeak ondorio legalak izango ditu, eta Basque Trade & Investment-ek eskubidea izango du kalte-ordainak eskatzeko hartzailleak bere betebeharrak urratzeagatik gerta litezkeen kalteengatik.




A blue-tinted photograph of an airplane on a tarmac. The airplane's wing, tail, and a large engine are visible. A white geometric pattern, resembling a series of interlocking squares or a maze, is overlaid on the right side of the image. A white square box containing the number '1' is positioned on the left side, above the text 'In Focus'.

1

In Focus



Areagotu egin dira tentsio globalak, Asian bereziki






Donald Trumpen garaipena

Trumpek nabarmen irabazi ditu AEBko hauteskundeak 312 hauteskunde-botorekin eta inpaktu global handiko politika protekzionista iragarri du

Zer gertatu da?



- **Donald Trumpen garaipena esperotakoa baino handiagoa izan da.** Azaroaren 5ean, Donald Trumpek hauteskunde orokorrak irabazi zituen botoen % 51ekin. Alderdi errepublikanoak senatuaren boterea berreskuratu du eta gehiengo mantenduko du ordezkarien ganberan.
- **Babes legegile handia.** Alderdi errepublikanoak tarte handiarekin lortu zuen garaipena (nabarmen gaititu zituen 2016ko emaitzak) eta horrek politika oldarkorragoak ezartzeko aukera emango dio, batez ere immigrazioaren eta merkataritzako muga-zergen arloan.

Inpaktua AEBn



- **Inflazio handiagoa.** Trumpen politikek, batez ere muga-zergen eta immigrazioaren arlokoek, inflazioa areagotu dezakete eta Erreserba Federalaren tasen beherakada geldiarazi.
- **Desazelerazio ekonomikoa.** Hazkunde ekonomikoaren desazelerazioa aurreikusten da politika protekzionisten eta interes-tasa handiagoen ondorioz.
- **Zerga txikiagoak enpresei.** Zerga korporatiboa % 21etik % 15era murrizteak enpresen inbertsioa estimulatu du, baina defizita handitu egin daiteke.
- **Zerga-defizit handiagoa.** Zerga-defizita BPGren % 7 inguruan mantentzea espero da 2025ean, zergen murrizketen eta azpiegituretako gastuen ondorioz.

Inpaktu globala



- **Trumpen politikek “America First” iradokitzen dute** eta horrek eragina izango du nazioarteko harremanetan eta munduko ekonomian:

Eskualdea

Inpaktua

Asia

- Tentsio komertzialak eta ekonomikoak areagotu egin dira Trumpek muga-zerga handiagoak ezartzeko mehatxua egin dielako superabiti komertziala duten Asiako ekonomiei, hala nola Txinari, Vietnami eta Japoniari.

Europa

- Ziurgabetasuna handitu da defentsan, Trumpen administrazioak gastu militarra handitzeko eskatu dielako Europako herrialdeei. Muga-zergen igoerak eragin negatiboa izango du ahulduta dauden ekonomietan.

Latinoamerika

- Murrizketak areagotu egingo dira oro har, batez ere Mexikon, Estatu Batuetako enpresak aberriratu egingo direlako. Kanpainen zehar, Trumpek mehatxu egin zuen muga-zergak % 25era igoko zituela immigrazio ilegala kontrolatu ezean.

Afrika

- Eskualdeak garrantzi handiagoa izango du Trumpen administrazioan, Txinak eta Errusiak kontinentean duten eraginari aurre egiteko

Ekialde Ertaina

- Trumpen administrazioarekin tentsioak biziagotzea aurreikusten da Gazako Zerrendan, Irani zigorrak gogortuko dizkiolako eta babes etengabea eta baldintzarik gabea ematen diolako Israeli.



Egoera delikatua Alemanian

Alemaniak erronka ekonomiko eta politikoak ditu; suspertze neurritsua izango du eta tentsio komertzialak ditu Trump hautatu dutenetik

Zer gertatu da?



- **Testuinguru ekonomiko zaila.** Alemania suspertze ahula izaten ari da. 2024an BPGren hazkundera laua izan da ia (% 0,2) eta 2025ean apur bat handiagoa izango da (% 0,9). Energiaren kostu altuek ekonomia ahuldu dute, Errusiako gasaren hornikuntza galdu egin delako eta Txinaren eskaria txikiagoa delako.
- **Hauteskunde aurreratuak.** 2025eko otsailaren 23an egingo dira hauteskunde aurreratuak, iragan azaroaren 6an kolapsatu egin baitzuen hiru alderdiren arteko koalizioak. Izan ere, Finantza ministroa kaleratu egin zuten, 2025eko aurrekontuen gaineko eztabaidengatik. Inkesten arabera, Olaf Scholzen Alderdi Soziodemokratak (SPD) sendotasuna galduko du, Friedrich Merzen zentro-eskuineko CDU alderdiaren onurarako.
- **Manufaktura-industria ahulduta.** Energiaren garestitzea eta trantsizio berdea eragina izaten ari dira automobilgintzaren eta siderurgiaren industrian, hots, Alemaniako merkataritzaren ardatzean.

Posizio globala



- **EBren lidergo ekonomikorako desfioa.** Alemania desazelerazio ekonomikoaren arrisku bat da eskualde osoarentzat, susperraldi ahula izan duelako eta mendekotasun energetikoa duelako.
- **AEBren muga-zerga berriak.** Donald Trumpen garaipenaren ostean, muga-zergek eragin larria izan dezakete Alemaniako esportazioetan, batez ere, automobilen sektorean.
- **Desazelerazioa nazioarteko inbertsioan.** Enpresa batzuk gero eta inbertsio handiagoak egiten ari dira herrialdetik kanpo, esaterako BASF eta Volkswagen AEBn eta Txinan. Horrek eragina murriztu dezake eta munduan duen posizioa ahuldu.

Etorkizuneko aurreikuspenak

1. Suspertze neurritsua 2025ean




2025ean BPG % 0,9 haztea aurreikusten da, baina Trumpek ezarriko dituen murrizketa komertzialek eta trantsizio energetikoak **baldintzatuko** dute.

2. Trantsizio ekologikorako aukerak



Barrerak espero diren arren, Alemaniak **bilakaera izango du energia eolikoaren eta hidrogenoaren sektoreetan**. Nazioarteko inbertsioak funtsezkoak izango dira trantsizio horretan, besteak beste TSMCren erdi-eroaleen instalazioa Dresdenen.

3. Tentsioa automobilgintza-sektorean



Ibilgailu elektrikoaren sektoreko kompetentzia globalek, **Txinako osagarrien gaineko muga-zergek eta Trumpen mehatxuek** arriskutsuak izaten jarraituko dute Alemaniako ibilgailu autopropultsatuen industriarentzat.

4. Zerbitzuetara bideratutako eraldaketa estrukturala



Alemaniako ekonomiak **zerbitzuen sektorean oinarritutako eredu baterantz jotzea** espero da, manufaktura-industrian duen mendekotasuna murriztuz.



Gatazka Ekialde Ertainean

Areagotu egin dira tentsioak Ekialde Hurbilean, Israelek Libanori eraso egin eta Iranek Israelera misilak jaurti ostean

Zer gertatu da?

- **Hamasen eraso eta Israelen erantzuna.** 2024ko urrian, Hamasek eraso egin zion Israeli eta indar militar basatia ekarri zuen Israelen partetik. Israelek lurreko eta aireko ofentsiba hasi zuen Gazan, Hamasekin amaitzeko, baina Hezbolaren aurkako fronte bat zabaldu du Libanon.
- **Eskualdeko potentzien esku-hartzea.** Iran Hezbola eta Hamasen aliatu garrantzitsua da eta bere erretorika indartu eta talde armatuei lagundu die. Horrek areagotu egin du Israelen eta Iranen arteko borroka zuzenak izateko aukera eta misil bidezko lehen eraso gurutzatuak izan dira.

Garrantzia

- **Eskualdeko eskalada global bihur daiteke.** Gatazkan nazio edo interes gehiagok esku hartuz gero, beste herrialde batzuen esku-hartze militar zuzena eragin dezake, esaterako, AEBrena.
- **Eraginak Itsaso Gorrian eta Ormuzeko itsasartean.** Gero eta arrisku handiagoa dago gatazka Itsaso Gorriara eta Ormuzeko itsasartera zabaltzeko. Ibilbide horiek garrantzitsuak dira nazioarteko merkataritzarentzat, batez ere hidrokarburoentzat. Ormuzeko itsasartea kritikoa da; izan ere, munduko petrolio-hornikuntzaren % 20 bertatik igarotzen da eta, hortaz, puntu oso zaurgarria da eskalada handiago baten kasuan.



Etorkizuneko balizko agertokiak

1. Eskualdeko gatazka luzatu egingo da

Probabilitate altua

- Gatazka-egoera hori **Ekialde Ertaineko beste leku batzuetara** zabaldu da, Iranen parte-hartze aktiboarekin. Borrokak Golkora eta Ormuzeko itsasartera zabalduko lirateke.
- Petrolioaren **prezioak asko eta denbora luzez igoko lirateke**, upeleko 120 USDra.

2. Eskalada mugatua eta euste azkarra

Probabilitate ertaina

- Agertoki horretan, **gatazka biziagotu egiten den arren behin-behinean**, azkar eusten diote nazioarteko ahalegin diplomatikoei esker.
- **Petrolioaren prezioak behin-behineko gorakada izango lukete, 90-95 USD upel bakoitzeko**, bai eta garraio-kostuek ere.

3. Eskalada masiboa eta esku-hartzea


Probabilitate baxua

- Gatazka **eskala handiko gerra** bihurtzen da, eta Estatu Batuek eta bere aliatuek esku-hartze militar zuzena egiten dute.
- **Petrolioaren prezioa 150 USDtik gora egongo litzateke upel bakoitzeko** eta krisi energetiko globala ekarriko luke.



2

Ikuspegi orokorra





BPG Errealaren hazkundera

2024rako aurreikusitako munduko ekonomiaren hazkundera aldatu egin da apur bat hirugarren hiruhilekoan (% 2,5) bigarren hiruhilekoko proiektioei dagokienez (% 2,4)

EUROPA ETA AMERIKA



Eskualde horiek **esperotakoa baino erresilientzia ekonomiko handiagoa** erakutsi dute eta azkar egokitu dute moneta-politika

AFRIKA, EKIALDE ERTAINA ETA ASIA




Afrika Mendebaldeko terrorismoaren gorakadak, Ekialdeko tentsio geopolitikoaren hazkundera eta Txinaren desazelerazio ekonomikoak beheranzko presioa eragin dute hazkunde ekonomikoaren estimazioetan.

Eskualdea	2024ko 2H	2024ko 3H	Aldaketa (ehuneko puntuetan)
Saharaz Hegoaldeko Afrika	% 3,3	% 2,5	0,8
Afrika iparraldea Eta Ekialde Ertaina	% 2,6	% 2,4	0,2
Asia Pazifikoa	% 3,9	% 3,8	0,1
Europa	% 1,2	% 1,5	0,3
Latinoamerika	% 1,7	% 2,0	0,3
Ipar Amerika	% 2,0	% 2,3	0,3
Globala	% 2,4	% 2,5	0,1

BPG errealaren hazkunderaren proiektzioak herrialdearen eta eskualdearen arabera

BPG errealaren hazkundera (%) herrialdearen arabera (2024ko urria)





Inflazioa eta interes-tasa

Inflazioak jaisten jarraituko du, baina estimazioak gorantz berrikusi dira, Txinan eta Indian izan ezik. Interes-tasen beherakada aurreikusitakoa baino handiagoa da

INFLAZIOA KONTROLATUA IZATEN HASI DA




- 2024an eta 2025ean, **inflazioak jaisten jarraituko du pixkanaka** ekonomia gehienetan.
- Inflazioaren aurreikuspenak lortu nahi zen **% 2ra hurbildu dira Euro Eremuan, Erresuma Batuan eta Japonian.**
- Eskaintzaren baldintzek hobera egin duten arren bigarren hiruhilekoan, lan-merkatuek estu jarraitzen dute, batez ere AEBn, eta tentsio geopolitikoek **inflazioaren presioak eragin dituzte** zerbitzuetan eta energian.

TASEN BEHERAKADA AURREIKUSITAKOA BAINO HANDIAGOA DA




- Tasek beheranzko joera globala dute, pixkanakako egokitzapenekin, baina aurreko Behatokian aurreikusitakoa baino **beheranzko aldapa handiagorekin.**
- Europako Banku Zentrala** pixkanaka hasi da interes-tasak murrizten, **% 0,25 hiruhileko bakoitzean** (% 4 → % 3,25).
- Erreserba Federalak lehen aldiz jaitsi ditu interes-tasak 2020tik** (oinarrizko -75 puntu).

Inflazio-tasan espero zen bilakaera



Interes-tasetan espero zen bilakaera





Atzerriko Inbertsio Zuzena

Afrika Iparraldean AIZren gorakada handia izan da 2024an. Europak suspertzen jarraitzen du eta 2025erako superabita aurreikusten da

AIZ AFRIKAN ETA LATINOAMERIKAN


- **Afrika iparraldea:** 2024an, atzerriko inbertsio zuzena BPGren % 1,6 eta % 4,3 artean handitzea espero da, erreforma ekonomikoen eta **energia berriztagarrien garapenaren** ondorioz, bereziki Marokon.
- **Saharaz Hegoaldeko Afrika:** AIZk BPGren % 2,8 lortu du 2024an, integrazio ekonomiko global handiagoari esker eta urte hasieran **igorritako bonu subiranoei** esker. Horrek eskualdearen irigarritasuna eta erakargarritasuna sustatu du nazioarteko finantza-merkatuentzat.
- **Latinoamerika:** **AIZ egonkor mantentzea aurreikusten da**, BGPren % 2,9 inguruan 2024an, **batezbesteko globalaren gainetik**. Izan ere, **baliabide naturalek** interes handia sortzen dute.

AIZ ASIAN, EUROPAN ETA IPAR AMERIKAN

- **Asia-Pazifikoa eta Ekialde Ertaina:** Ez da aldaketa handirik espero Asiako AIZn 2024 eta 2025ean, **Txinan izandako desazelerazio ekonomikoa** dela eta. Hala ere, Saudi Arabian eta Indian asko ari da handitzen AIZ.
- **Ipar Amerika:** **Hazkunde txikiak** espero dira 2024an eta 2025ean, baina munduko batezbestekoaren azpitik daude oraindik ere, ekonomiaren geldialdiaren eta **handitzen ari den** lehia globalaren ondorioz.
- **Europa:** Europak 2023ko AIZren beherakada handitik suspertzen jarraitzen du. **2025erako, superabita espero da AIZren fluxuetan**, inbertsioa itzuliko baita sektore garrantzitsuetara, hala nola teknologiara eta jasangarritasunera.

Atzerriko Inbertsio Zuzena (BPGren %)

■ 2023 ■ 2024 ■ 2025





3


Eskualdeko ikuspegia




Amerika

Amerikako hazkunde ekonomikoaren aurreikuspenak egonkor mantendu dira; izan ere, eskualdeak erronka politiko eta komertzialei egin behar die aurre eta baliteke horrek hazkunde mugatzea epe labur-ertainean


BPG ERREALAREN HAZKUNDEA



INFLAZIO TASA



INTERES TASAK



Ipar Amerika

- Fedek interes-tasak jaitsi ditu lehen aldiz 2020tik eta inflazioa bere helburuetatik gertu dago.
- 2025eko AEBren hazkunde ekonomikoa % 1,4ra jaitea espero da, hozte-ekonomiaren ondorioz.
- Kanadako ekonomia apur bat haziko da 2024an, baina arriskuak ditu lan-gatazkengatik eta etxebizitzaren prezioen gorakadarengatik.

Latinoamerika

- Latinoamerikako ekonomia apirilean aurreikusitakoa (% 1,7) baino gehiago haziko da (% 2,0) 2024an, Argentina atzeralditik ateratzen ari delako.
- Besteak beste, Mexikon, Kolonbian eta Perun dagoen ziurgabetasun politikoak hazkunde mugatu dezake.
- Trump berriro hautatu izanak eta bere politika protekzionistek beheranzko aurreikuspenak presionatu ditzakete datozen hiruhilekoetan.

Eskualdeko ikuspegia



1

In Focus



2

Ikuspegi orokorra



3

Eskualdeko ikuspegia



4

Herrialdeen fitxak

Amerika



EKONOMIA



NAZIOARTEKO POLITIKA ETA HARREMANAK



ENPRESA GIROA



Brasil

Hazkunde ekonomikoa

Moneta-politika eta inflazioa

Zerga-politika

Egonkortasun instituzionala

Nazioarteko harremanak

Enpresa-ingurunea

Merkatua arautzea



Kanada



Txile



Kolonbia



AEB



Mexiko

Bilakaera ona

Ez da aldaketarik izan edo aldaketa txikiak izan dira eta herrialdearen egoera mantendu egingo da edo hobera egingo du.

Bilakaera zalantzarik gabekoa

Aldaketak izango dira edo aldaketak aurreikusten dira eta adi egon beharko da ekar ditzaketen arriskuak direla eta.

Bilakaera txarra

Herrialdean eragin negatiboa duten edo arriskuak ekar ditzaketen aldaketak ekonomian, politikan edo enpresen araudian.

Bilakaera oso txarra

Herrialdean eragin oso negatiboa duten edo arrisku handiak ekar ditzaketen aldaketak ekonomian, politikan edo enpresen araudian.





Asia Pazifikoa

Asia-Pazifikoa azkarren hazten den eskualdea izaten jarraitzen du. Hala ere, hazkunde horrek erronkak ditu tentsio geopolitikoaren eta Txinaren desazelerazio ekonomikoaren ondorioz.


BPG ERREALAREN HAZKUNDEA



INFLAZIO TASA



INTERES TASAK



Asia

- Hazkunde ekonomikoak sendoa izaten jarraituko du Asian, 2025ean desazelerazioa izango den arren, Txinan batez ere.
- Txina Hegoaldeko Itsasoan eta Taiwanen dauden gatazka geopolitikoek kolokan jartzen dute eskualdeko egonkortasuna. Hornikuntza-kateei eragingo dieten gatazka militarrek izateko arriskua dago.
- Indiak hazkunderik handiena duen munduko ekonomietako bat izaten jarraituko du, inbertsio publikoaren eta zerbitzuen sektorearen ondorioz.
- Aaren aurrerapausoek arriskuan jartzen dituzte enpleguak hainbat zerbitzu garrantzitsutan.

Ozeania

- Ozeaniak AEB eta Txinako kanpo-politikak eratorritako erronkak izango ditu, batez ere segurtasunari eta merkataritzari dagokionez.
- Muturreko gertaera klimatikoak gero eta kezka handiagoa bihurtuko dira eta eragina izango dute elikagaien segurtasunean eta azpiegitura garrantzitsuetan.

Eskualdeko ikuspegia



1

In Focus



2

Ikuspegi orokorra



3

Eskualdeko ikuspegia



4

Herrialdeen fitxak

Asia Pazifikoa



EKONOMIA



NAZIOARTEKO POLITIKA ETA HARREMANAK



ENPRESA GIROA



Australia

Hazkunde ekonomikoa

Moneta-politika eta inflazioa

Zerga-politika

Egonkortasun instituzionala

Nazioarteko harremanak

Enpresa-ingurunea

Merkatua arautzea



Txina



India



Japonia



Hego Korea

Bilakaera ona

Ez da aldaketarik izan edo aldaketa txikiak izan dira eta herrialdearen egoera mantendu egingo da edo hobera egingo du.

Bilakaera zalantzarik gabea

Aldaketak izango dira edo aldaketak aurreikusten dira eta adi egon beharko da ekar ditzaketen arriskuak direla eta.

Bilakaera txarra

Herrialdean eragin negatiboa duten edo arriskuak ekar ditzaketen aldaketak ekonomian, politikan edo enpresen araudian.

Bilakaera oso txarra

Herrialdean eragin oso negatiboa duten edo arrisku handiak ekar ditzaketen aldaketak ekonomian, politikan edo enpresen araudian.




Afrika eta Ekialde Ertaina

Hazkunde ekonomikoa Afrikan eta Ekialde Ertainean, sektore garrantzitsuen, dibertsifikazioaren eta erronka geopolitikoentzako egiturazko erreformen ondorioz


BPG ERREALAREN HAZKUNDEA




■ 2024 ■ 2025



INFLAZIO TASA



INTERES TASAK



Afrika

- Afrikan **hazkunde ekonomikoaren desazelerazioa** izango da, nekazaritza-sektoreak, meatzaritzak eta energiak sustatuta.
- Ziurgabetasun politikoak eta gatazka armatuak** eragina izaten jarraituko dute, milizia oldarkorrek dakartzaten arriskuekin, hauteskunde-tentsioekin eta lehia geopolitikoekin.
- Kanpo-potentzien arteko lehiak**, batez ere Afrikaren adarrean eta Sahelen, oztopoa dira eskualdearen integrazioarako.

Ekialde Ertaina

- BPGren hazkunde indartu egingo da 2025ean**, dibertsifikazio ekonomikoaren ondorioz.
- Gatazka handiago baten arriskuak** bere horretan jarraitzen du, batez ere Israel eta Iranen eta bere aliatu Hezbolaren artean.
- Petrolio-esportatzaileek ekonomia dibertsifikatzen** jarraituko dute, baina petrolioaren prezioen beherakadaren ondorioz, egokitzapen anbiziotsuagoak egin beharko dira planetan.

Eskualdeko ikuspegia



1

In Focus



2

Ikuspegi orokorra



3

Eskualdeko ikuspegia



4

Herrialdeen fitxak

Afrika eta Ekialde Ertaina



EKONOMIA



NAZIOARTEKO POLITIKA ETA HARREMANAK



ENPRESA GIROA



Maroko

Hazkunde ekonomikoa



Moneta-politika eta inflazioa



Zerga-politika



Egonkortasun instituzionala



Nazioarteko harremanak



Enpresa-ingurunea



Merkatua arautzea



Hegoafrika



Arabiarr Emirerriak



Egipto



Nigeria



Israel



Bilakaera ona

Ez da aldaketarik izan edo aldaketa txikiak izan dira eta herrialdearen egoera mantendu egingo da edo hobera egingo du.

Bilakaera zalantzarria

Aldaketak izango dira edo aldaketak aurreikusten dira eta adi egon beharko da ekar ditzaketen arriskuak direla eta.

Bilakaera txarra

Herrialdean eragin negatiboa duten edo arriskuak ekar ditzaketen aldaketak ekonomian, politikan edo enpresen araudian.

Bilakaera oso txarra


Herrialdean eragin oso negatiboa duten edo arrisku handiak ekar ditzaketen aldaketak ekonomian, politikan edo enpresen araudian.




Europa

Europako ekonomiak hobekuntza-zantzu txikiak izan ditu 2024an eta 2025ean, baina zatiketa politikoak eta Txina eta AEBrekin dauden tentsio komertzialek hazkundera geldiarazi dezakete eta ziurgabetasuna sortu


BPG ERREALAREN HAZKUNDEA



INFLAZIO TASA



INTERES TASAK



Mendebaldeko Europa

- Hazkunde ekonomiko neurritsua** aurreikusten da 2025erako, Trumpen garaipenaren ondorioz AEBk muga-zergak handitu ditzakeelako.
- Koalizio politikoak zatituta daude**, eskuin muturreko alderdiek gora egin dute eta defizitak murrizteko zailtasunak daude.
- Inflazioak behera egin du**, baina soldaten presioek eta arrisku geopolitikoek eragina dute oraindik ere.

Ekialdeko Europa

- Hazkunde ekonomiko jarraitua** EBren funtsen laguntzarengatik, batez ere inbertsio berde eta digitaletan.
- Bake-elkarrizketak Errusiaren eta Ukrainaren artean** 2025ean, baina akordio iraunkor bat lortzea ez da probablea.
- Tentsio komertzialak Txinarekin**, hornikuntza-kateetan arriskua murrizteko politiken ondorioz.

Eskualdeko ikuspegia



1

In Focus



2

Ikuspegi orokorra



3

Eskualdeko ikuspegia



4

Herrialdeen fitxak

Europa



EKONOMIA




NAZIOARTEKO POLITIKA ETA HARREMANAK



ENPRESA GIROA



Frantzia



Alemania



Italia



Polonia



Erresuma Batua



Bilakaera ona

Ez da aldaketarik izan edo aldaketa txikiak izan dira eta herrialdearen egoera mantendu egingo da edo hobera egingo du.

Bilakaera zalantzarria

Aldaketak izango dira edo aldaketak aurreikusten dira eta adi egon beharko da ekar ditzaketen arriskuak direla eta.

Bilakaera txarra

Herrialdean eragin negatiboa duten edo arriskuak ekar ditzaketen aldaketak ekonomian, politikan edo enpresen araudian.

Bilakaera oso txarra

Herrialdean eragin oso negatiboa duten edo arrisku handiak ekar ditzaketen aldaketak ekonomian, politikan edo enpresen araudian.

Eskualdeko ikuspegia



1

In Focus



2

Ikuspegi orokorra



3

Eskualdeko ikuspegia



4

Herrialdeen fitxak

Europa



EKONOMIA



NAZIOARTEKO POLITIKA ETA HARREMANAK



ENPRESA GIROA



Turkia

Hazkunde ekonomikoa

Moneta-politika eta inflazioa

Zerga-politika

Egonkortasun instituzionala

Nazioarteko harremanak

Enpresa-ingurunea

Merkatua arautzea



Txekiar Errepublika



Norvegia



Suedia



Belgika



Herbehereak

Bilakaera ona

Ez da aldaketarik izan edo aldaketa txikiak izan dira eta herrialdearen egoera mantendu egingo da edo hobera egingo du.

Bilakaera zalantzarik gabekoa

Aldaketak izango dira edo aldaketak aurreikusten dira eta adi egon beharko da ekar ditzaketen arriskuak direla eta.

Bilakaera txarra

Herrialdean eragin negatiboa duten edo arriskuak ekar ditzaketen aldaketak ekonomian, politikan edo enpresen araudian.


Bilakaera oso txarra

Herrialdean eragin oso negatiboa duten edo arrisku handiak ekar ditzaketen aldaketak ekonomian, politikan edo enpresen araudian.



4


Herrialdeen fitxak




Brasilek erronka ekonomikoak ditu, zor publiko handiarekin eta hazkunde neurritsuarekin. Erreforma fiskalak eta zerga-erreformak aurreikusten diren arren, zatiketa politikoak horiek ezartzea zailtzen du eta horrek aurrerapen ekonomikoa mugatu dezake



EKONOMIA



NAZIOARTEKO POLITIKA ETA HARREMANAK



ENPRESA GIROA



Hazkunde ekonomikoa	Moneta-politika eta inflazioa	Zerga-politika
---------------------	-------------------------------	----------------

- Hazkunde ekonomiko neurritsua.** BPGren hazkundera % 2ra jaitea aurreikusten da 2025ean, irailean hasitako monetaren gogortze politiken ondorioz.
- Moneta-politika aldatua.** Banku Zentralak % 10,75era igo zituen tasak irailean, inflazioari eusteko. Datozen hilabeteetan gorakada berriak aurreikusten dira, murrizketetara itzuli aurretik.
- Zerga-politika seinale mistoekin:** 2025eko aurrekontua diru-sarrera gehigarri zalantzaragarraren mende dago eta gastua arintzeak iradokitzen du zerga-diziplina falta dela. Horrek zalantzak sortzen ditu gobernuak zergen egonkortasunari dagokionez epe luzean dituen helburuen gainean.

Egonkortasun instituzionala

Nazioarteko harremanak

- Erronkak egonkortasun politikoan.** Lularen gobernuan eragina izango dute 2025ean bere koalizioaren barruko eztabaidek eta horrek erreformak onartzea zailduko du.
- Udal-hauteskundeak termometro politiko gisa.** 2024ko urriko hauteskundeek Lulak duen babesa neurtuko dute. Bitartean, eskuinak eragina izaten jarraitzen du, Bolsonaro gabe.
- Nazioarteko tentsioak eta posizionamendu globala.** Lularen gobernuaren helburua da BRICSen presentzia indartzea Brasilen, baina Ukrainako gerran duen neutraltasunak tentsioa areagotu du Mendebaldearekin.

Enpresa-ingurunea


Merkatuaren erregulazioa

- Zergen sinplifikazioak aurrera egin du, baina erreforma fiskal gehigarriak gelditu egin dira.** 2023ko zergak sinplifikatzeko erreformak aurrera jarraitzen du. Hala ere, aberatsenak zergapetzeko proposamenek erresistentzia eragin dute kongresuan.
- Oztopoak sortu dira Lularentzat eskuineko kongresu batean.** 2024ko urriko udal-hauteskundeek Lulak duen babesa neurtuko dute. Bitartean, eskuinak eragina izaten jarraitzen du, Bolsonaro gabe.
- Urteko bigarren zatian, handitu egin da kapital pribatuaren rola.** Brasilek gero eta mendekotasun handiagoa du azpiegiturarekiko, bankuek handitu egin baitute finantzaketan duten parte-hartzea gobernuaren zerga-murrizketen ondorioz.


Kanadak hazkunde neurritsua izan du bere enpresa-ingurune erresilienteak eta azken zerga-erreformek sustatuta, baina desafioak ditu barne-tentsio politikoek eragindako erronken eta AEBren protekzionismoaren ondorioz



EKONOMIA



NAZIOARTEKO POLITIKA ETA HARREMANAK



ENPRESA GIROA



Hazkunde ekonomikoa

Moneta-politika eta inflazioa

Zerga-politika

- Ekonomiak hazten jarraituko du pixkanaka.** Kanadako ekonomia azkarrago haziko da 2025ean (% 1,7), baina kanpoko eskari ahulak mugatu egingo du eta AEBren protekzionismoaren mende egongo da.
- Kanadako Bankuak tasak murrizten jarraitzen du, egonkortasuna bilatzeko.** Murrizketa gehiago espero dira 2024 amaieran, inflazioa kontrolpean dagoenean eta barne-ekonomia babesteko.
- Zorra maila altuetan mantenduko da.** Gobernuaren etxebizitzarako dirulaguntzak lehenesten saiatzen eta isurpenak murrizten ari da, baina gaitasun mugatua du berriki izandako zatiketa politikoa dela eta.

Egonkortasun instituzionala

Nazioarteko harremanak

- NPDrekin izandako hausturak hauteskunde aurreratuak izateko arriskua handitu du.** Justin Trudeau boterean jarraituko du 2025eko urriko hauteskundeetara arte, baina bere egoera ahulagoa da irailean NPDrekin zuen akordioa apurtu zenetik.
- Probintzia kontserbadoreekin dauden tentsioek zaildu egiten dute politikak ezartzea.** Probintzia horiek gobernuaren ahultasuna baliatzen ari dira neurri batzuen aurka egiteko, esaterako, karbonoaren gaineko zergaren aurka.
- Trumpen balizko garaipen batek ziurgabetasun politikoak areagotu ditzake 2025ean.** Donald Trump berriro aukeratzeak harremanak larriagotu ditzake Kanadaren eta AEBren artean, batez ere gai komertzialetan eta klimatikoetan.

Enpresa-ingurunea


Merkatuaren erregulazioa

- Enpresa-ingurune gero eta erresilienteagoa.** Kanada da EIUk ondoen baloratzen duen seigarren herrialdea enpresa-inguruneari dagokionez, batez ere, azken zerga-erreformengatik eta egonkortasun ekonomiko handiarengatik.
- Gero eta araudi zorrotzagoak atzerriko inbertsioarentzat.** Kanadak giro ona eskaintzen duen arren atzerriko inbertsioentzat, atzerriko inbertsioa erregulatzen ari da sektore sentibera batzuetan. 2024ko abuztuan, % 100eko inportazio-zerga ezarri zien Finantza Ministroak Txinako fabrikatutako ibilgailu elektrikoak eta % 25ekoa Txinako altzairuari eta aluminioari, 2024ko urritik aurrera.

Txilek aurrerapausoak egin ditu baliabide estrategikoen eta energia garbien lidergoan, eta bere garrantzi globala sustatu du, nahiz eta hainbat erronka dituen ingurumen-erregulazio zorrotzen eta erreforma garrantzitsuei ezarritako blokeoen ondorioz



EKONOMIA



Hazkunde ekonomikoa


Moneta-politika eta inflazioa

Zerga-politika

- Hazkunde neurritsua 2025ean, enplegu ahulak eta energiaren prezio altuagoek baldintzatuta.** BPG % 2,2 igoko da 2025ean, baina kontsumo pribatua mugatua izango da enpleguaren hazkunde ahula eta elektrizitatearen prezioen igoera direla eta.
- Inflazioa aurreikusitakoaren arabera jaitsiko da.** Inflazioak helburuaren gainetik jarraitzea aurreikusten den arren, datozen hiru hilabeteetan pixkanaka jaitea espero da.
- Zergen defizitak behera egingo du 2025an, baina gastu handia erronka izango da oraindik ere.** Zerga-politikak egonkor jarraituko du kobreaken prezioetatik eratorritako diru-sarreraren gorakadaren ondorioz. Hala ere, gastu sozialaren igoerak diru-sarrera horiek murriztu ditzake.



NAZIOARTEKO POLITIKA ETA HARREMANAK



Egonkortasun instituzionala

Nazioarteko harremanak

- Erreformak blokeatuta eta gobernuaren ospe ezaren gorakada.** Boricek proposatutako erreforma gehienak blokeatu egin dira senatuan gehiengorik ez duelako. 2025eko hauteskundeetan eskuinak irabazteko aukerak handitu egin dira.
- Txilek munduko geopolitikan eragile garrantzitsu gisa finkatzen jarraitzen du.** Kobre eta litio asko duelako eta epe labur-ertainean hidrogenoa ekoizteko ustiapen-gaitasuna duelako.
- Trumpen AEBko garaipenak inplikazio garrantzitsuak izango ditu.** AEBrekin egindako merkataritza-tratatuari esker Txile muga-zerga unibertsaletatik babestea espero den arren, Txileko inbertsioen gaineko prezio diplomatikoa handitzeko arriskua dago.



ENPRESA GIROA



Enpresa-ingurunea

Merkatuaren erregulazioa


- Lehiakortasuna kaltetzen ari da, Latinoamerikan enpresa-ingurunerik onena duen herrialdea izan arren.** Ingurumeneko erregulazio handiak ezarri dira azken hilabeteotan eta oztopo izaten ari dira lehiakortasunerako, kostuak handitu eta merkaturako aukerak murriztu egin direlako.
- Litioa nazionalizatzeko estrategiak aurrera jarraitzen du.** Litioaren erauzketan estatuaren parte-hartze handiagoa lortzen saiatzen ari da Boricen gobernuak, enpresa pribatuen laguntzarekin.




Kolonbian gorakada ekonomikoa aurreikusten da 2025erako kontsumo pribatuak eta inbertsioek sustatuta; nahiz eta ezegonkortasun politikoa, gastu publiko handia eta nazioarteko harreman konplexuak izan



EKONOMIA



NAZIOARTEKO POLITIKA ETA HARREMANAK



ENPRESA GIROA



Hazkunde ekonomikoa

Moneta-politika eta inflazioa

Zerga-politika

- **Hazkunde ekonomikoak gora egingo du 2025ean, kontsumoak eta inbertsio pribatuak sustatuta.** 2024an hazkunde neurritsua izan ondoren, Kolonbiako BPGa erritmo azkarragoan haziko da 2025ean kontsumo pribatuari eta inbertsioari esker.
- **Interes-tasek jaisten jarraituko dute pixkanaka eta inflazioa aurreikusitakoa baino gehiago jaitziko da.** 2025erako hobera egingo dute inflazioaren aurreikuspenek, eta, ondorioz, Banku Zentrala tasen murrizketa bortitzagoak egiten hasi da.
- **Zerga-defizitak altua izaten jarraituko du etengabeko gastu publikoaren ondorioz.** Petroren gobernuak gastu publikoaren maila altuak mantenduko ditu eta horrek eragina izaten jarraituko du herrialdearen kreditu-konfiantzan.

Egonkortasun instituzionala

Nazioarteko harremanak

- **Ezegonkortasun politikoa eta zailtasunak kongresuan.** Petroren gobernuak azken politika sozialak baztertu ditu eta horrek bere posizioa ahultzen eta eztabaidak sortzen jarraitzen du kongresuan.
- **Negoiazioak etenda ELNrekin** Askapen Nazionalerako Armadarekin (ELN) izandako negoziatioetan dagoen bilakaera-falta dela eta, ez da oso litekeena bake-akordio iraunkor bat lortzea agintaldia amaitu aurretik.
- **Nazioarteko harreman konplexuak.** Venezuelako hauteskundeetan gertatutakoaren ondoren, Petroren gobernuak harremanak mantenduko ditu herrialdearekin, baina, aldi berean, AEBrekin dituen harremanak ez kaltetzen eta Txinarekin harremana estutzen jarraituko du.

Enpresa-ingurunea


Merkatuaren erregulazioa

- **Desjabetze-arriskua baxua da, nahiz eta egungo gobernuak kezka eragin.** Atzerriko inbertsioa murriztu egin da azken hiru hilabeteetan, inbertitzaileak gero eta kezkatuago daudelako Petroren gobernuaren mugimendu politiko eta komertzialekin, nahiz eta desjabetze-arriskua minimoa izan eta merkataritza libreko itunen atxikipena bermatuta egon.
- **Lehiakortasunak hobera egin du, nahiz eta petrolio gordina erazteko sektorean erregulazio handiagoa egon.** ELGaren esparruaren barruan konpromisoak hartu izanak enpresen lehiakortasuna hobetu du. Hala ere, erazketa-sektorearen erregulazio handiagoa ez da eten.


Desazelerazio ekonomikoa 2025ean, ziurgabetasun politikoaren gorakadarekin. Trumpen garaipenak ziurgabetasuna sortu du nazioarteko merkataritzan eta botere judiziala zalantzan jarriko du, bere egoera legala dela eta



EKONOMIA



NAZIOARTEKO POLITIKA ETA HARREMANAK



ENPRESA GIROA



Hazkunde ekonomikoa

Moneta-politika eta inflazioa

Zerga-politika

- Hazkundearen desazelerazioa 2025ean, baina atzeraldi teknikoa ekidingo da.** 2025ean, hazkundeak % 1,4ko desazelerazioa izatea espero da, kontsumo pribatua eta inbertsioa hoztu egingo direlako.
- Trumpen gobernuarekin moneta erlaxatu egingo da pixkanaka eta inflazio-arriskuak baxuak izango dira.** Fed hasi da dagoeneko oinarritzko 50 puntu murrizten irailean. Hala ere, Trumpen politika protekzionistek inflazio-arriskua handitu dezakete.
- Zorrek eta defizitak handitzen jarraitzen dute.** Gastu altuak eta zerga-murrizketa handiek oztopo egingo diete kontu nazionalai.

Egonkortasun instituzionala

Nazioarteko harremanak

- Kongresua zatituta egoteak paralisi legegilea ekarriko du.** Azaroko hauteskundearen ostean kongresua zatituta dago eta horrek geldialdi legegilea ekarriko du eta eragina izango du ezinbesteko legeak onartzeko garaian.
- Trumpen erroka legalak arriskutsuak dira sistema politiko eta judizialarentzat.** Donald Trumpek 54 kargu kriminal ditu hiru kasutan eta bere egoera legalak gobernagarritasuna zaildu dezake.
- Trumpen politika protekzionistak inpaktua izan dezake nazioarteko merkataritzan.** Trumpen administrazioaren asmoa da % 10eko muga-zerga ezartzea inportazioei, ondasunen kostuak igoz, eta horrek eragina izango du inflazioan.

Enpresa-ingurunea


Merkatuaren erregulazioa

- Enpresa-inguruneak hobera egin du, baina Txinarekiko lehiakortasunak ziurgabetasuna sortzen du.** AEBk erakargarria izaten jarraitzen du enpresa pribatuentzako politikengatik, baina Txinarekiko duen lehiakortasunak ziurgabetasun komertziala handitu du eta enpresek haien hornikuntza-kateak dibertsifikatu eta lehiakortasuna mugatu behar izan dute.
- Zailtasun fiskalek ziurgabetasun apur bat sortu dute enpresen artean.** Bidenen administrazioak zerga-erregimen korporatiboa erreformatu nahi izan du, baina oposizio politikoak ahalegin horiek mugatu ditu. Trumpen itzulerarekin, aurreko zerga-murrizketak handitu egingo dira eta ziurgabetasun handiagoa sortuko du horrek enpresentzat.


Sheinbaumen gobernu berriak egonkortasun politikoa eta jarraikortasun ekonomikoa bermatzen ditu, baina erronkak ditu inbertsio pribatuan eta enpresa-ingurunea apur bat ahulduta dago. Horrek hazkundera mugatuko du epe laburrean



EKONOMIA



NAZIOARTEKO POLITIKA ETA HARREMANAK



ENPRESA GIROA



Hazkunde ekonomikoa

Moneta-politika eta inflazioa

Zerga-politika

- Mexikoko hazkunde ekonomikoak geldotzen jarraituko du 2025ean.** Ekonomiak moteltzen jarraitzea espero da, inbertsio eta kontsumo txikiagoaren eta AEBren desazelerazioaren ondorioz.
- Moneta-politika erlaxatua eta inflazioaren pixkanakako beherakada.** Banxicok tasak pixkanaka murriztea espero da, % 10era arte urte amaierara bitarte. Inflazioak % 4,7an amaituko du eta 2025eko uztaillean xede-tartera iritsiko da, nahiz eta inflazio inportatuaren arriskuak hor egon.
- Administrazio berriak zerga-finkapenerako neurriak ezarriko ditu.** Sheinbaumen gobernu berriak defizita murrizteko austeritatea aplikatzea espero da.

Egonkortasun instituzionala

Nazioarteko harremanak

- Gobernagarritasun egonkorra Morenarekin, baina zentralizatzeko arriskuak.** Sheinbaumek egonkortasun politikoa mantenduko du, Morenaren gehiengoak sustatuta, baina boterea zentralizatzeko arriskua egongo da.
- Armadaren rola mantendu egingo da, baina tentsio instituzionalekin.** Shienbaumen gobernuak erronkak izango ditu eragin militarra mugatzeko. Aldaketa adierazgarriak aurreikusten ez den arren, botere judizialarekiko desadostasunak areagotu egin daitezke.
- Trumpek tentsio komertzialekin eta migrazio-tentsioekin egin du mehatxu.** AEBrekiko harremanak funtsezkoak izango dira, batez ere, Trump itzultzen denean, muga-zerga eta migrazio-politika gogorragoak sustatuko dituelako.

Enpresa-ingurunea


Merkatuaren erregulazioa

- Egiturazko anuitasunek eragina dute oraindik ere enpresa-ingurunean.** Zuzenbide-estatu sinbolikorik ezak eta egiturazko arazoek, hala nola lehiakortasun baxuak, laneko informaltasunak eta hezkuntza-maila baxuek eragina izaten jarraituko dute enpresa-ingurunean, nahiz eta atzerriko inbertsioa sustatzeko pizgarriak ezarri.
- Estatuak energian duen rol menderatzaileak eragina izango du atzerriko inbertsioan.** Sheinbaumek López Obradorren energia-burujabetzaren politika mantenduko du, petrolioari eta elektrizitateari begira. Horrek atzerriko inbertsioen fluxuan eragina izango du sektore horretan zein beste batzuetan, adibidez, azpiegituran.


Australiak hazkunde ekonomiko neurritsua izango du. Inflazioa helburuaren gainetik dago oraindik ere eta finantzaketa-kostuak altuak dira. Ingurune politikoa egonkorra da Laborismoaren lidergoaren ondorioz



EKONOMIA



NAZIOARTEKO POLITIKA ETA HARREMANAK



ENPRESA GIROA



Hazkunde ekonomikoa

Moneta-politika eta inflazioa

Zerga-politika

a.

Hazkunde ekonomikoa % 1,3ra jaitsiko da 2024an, batez ere, Txinara egindako esportazioen beherakadarengatik. 2025ean susperraldi neurritsua espero da, kontsumo pribatuak eta energia berdean egindako inbertsioak sustatuta.

- **Inflazioak helburuaren gainetik jarraitzen du.** Interes-tasak % 4,35ean mantenduko dira inflazioari aurre egiteko. 2025ean, % 3ra jaitea espero da, nahiz eta gora egiteko arriskuak jarraitu.
- **Defizita hauteskunde-gastuarengatik eta diru-sarrera txikiagoengatik.** Zerga-defizitak gora egingo du datozen hilabeteetan 2025eko hauteskundeek eragindako gastuen gorakadaren ondorioz eta esportazioen diru-sarreraren beherakadaren ondorioz.

Egonkortasun instituzionala

Nazioarteko harremanak

- **Laborismoaren lidergo egonkorra ingurune politikoa egokia bermatzen du.** Alderdi laboristak egonkortasuna mantentzen du berdeen eta independenteen babesari esker. Hala ere, gobernuak presio ekonomikoak ditu etxebizitzaren kostuarengatik.
- **Aliantza estrategikoetara oso bideratuta.** Australiak bere aliantzetan sakontzen jarraitzen du, batez ere, AUKUS itunaren pean. Itun horrek itsaspeko nuklearrak erostea jasotzen du, besteak beste.
- **Erronkak esportazioetan eta oreka komertzialean.** Kanpo-merkataritzak erronkak dakartza, batez ere, karbonoaren prezioek behera egin dutelako berriki eta Txinaren burdin-eskaria murriztu egin delako. Horrek superabit komertziala murriztu dezake.

Enpresa-ingurunea


Merkatuaren erregulazioa

- **Erronkak kompetentzia eta finantzaketa-kostuetan.** Australiako Gobernuak zailtasunak ditu elikadura-sektoreko bi kate handien domeinua murrizteko. Finantzaketa-kostuek altuak izaten jarraituko dute 2025era arte, eta horrek enpresa-kredituaren hazkundera mugatuko du. Hala ere, datozen hilabeteetan jaisten hastea espero da.
- **Atzerriko Inbertsioaren ikuskapen handiagoa eta ikuspegia azpiegiturara bideratua.** Atzerriko inbertsioak, batez ere Txinako enpresenak, ikuskapen handiagoa izango du eta hainbat sektore garrantzitsu erregulatuagoak egongo dira, hala nola bankak. Energia berdearen azpiegitura hobetzera bideratuko dira ahailekin.


Txinako ekonomia desazelerazioan jarraitzen du higiezin sektorearen ondorioz. 2025era begira, zerga-estimulu handiak espero dira egoera horri buelta emateko. Atzerriko inbertsioek kontrol handiagoa izango dute



EKONOMIA



NAZIOARTEKO POLITIKA ETA HARREMANAK



ENPRESA GIROA



Hazkunde ekonomikoa

Moneta-politika eta inflazioa

Zerga-politika

- Desazelerazio ekonomikoa eta arazoak higiezin sektorearentzat.** BPGa % 5eko mugaren azpitik handituko da eta 2025ean desazeleratzen jarraituko du, batez ere, higiezin sektorearen oztopoen ondorioz.
- Moneta Politika erlaxatu egingo da pixkanaka ekonomia estimulatzeko.** Interes-tasan murrizketak espero dira 2025ean. Hala ere, kredituaren eskari ahulak neurri horien inpaktua mugatuko du. Inflazioak baxu jarraituko du.
- Defizit handia eta zerga-erreformak.** Defizitak % 3ko proiektio ofizialaren gainetik jarraituko du. Espero da zerga-erreformak zerga-administrazioa indartzea eta finantza publikoen jasagarritasuna handitzea.

Egonkortasun instituzionala

Nazioarteko harremanak

- Xi Jinpingen kontrol sendoak ezinegon soziala handituko du.** Xi Jinping boterean finkatzeak egonkortasun politikoa bermatzen du, baina denbora luzez irauteak ezinegon sortzen du Txinako gizartearen zati batean.
- Tentsioak mendealdearekin eta ekonomia berrietara bideratutako ikuspegia.** Tentsioek jarraituko dute Txinak mendealdearekin dituen harremanetan eta Errusiari emandako babesak mesfidantza sortzen du.
- Superabit komertziala eta atzerriko inbertsiora bideratutako ikuspegia.** Txinak superabit komertziala mantenduko du 2024an eta 2025ean, hornikuntza-kateen dibertsifikazioak eta kanpo-inbertsioen hazkundeak bultzatuta.

Enpresa-ingurunea


Merkatuaren erregulazioa

- Merkatuaren aukerak hegakortasun makroekonomikoaren erdian.** Txinak potentzia erakargarria izaten jarraitzen du enpresentzat, bere azpiegitura aurreratuari esker. Hala ere, ingurune makroekonomikoak erronkak izango ditu, BPGren hazkundearen desazelerazioaren eta autosufizientzia ekonomiko gero eta handiagoaren ondorioz. Horrek enpresa nazionaleri ekarriko dizkie onurak.
- Atzerriko inbertsioetan kontrol handiagoa eta merkatuaren erregulazioak.** Txinak sektore batzuetan AIZ erakartzeko ikuspegia mantenduko du, baina mendealdeko herrialdeekin izandako geroz eta tentsio handiagoen eta datuen segurtasunaren eta kontrolaren gainera politika zorrotzen ondorioz, zaildu egingo da sektore garrantzitsu batzuetan sartzea, hala nola teknologian.


Indiaren hazkunde ekonomikoak oso handia izaten jarraituko du, baina desazelerazio txiki batekin. Azken hauteskundeen ondoren, BJPk bere aliatuen babesa behar du gobernatzeko



EKONOMIA



NAZIOARTEKO POLITIKA ETA HARREMANAK



ENPRESA GIROA



Hazkunde ekonomikoa

Moneta-politika eta inflazioa

Zerga-politika

- Hazkunde ekonomikoak handia izaten jarraituko du, baina desazelerazio txiki batekin.** Indiako ekonomia % 7ren azpitik handitzea espero da 2024-2025ean. Landa-kontsumoak hobera egingo du eta hiri-kontsumoarekiko arrakala itxi egingo da. Eskaria, aldiz, zerbitzuetara bideratzen ari da ondasunetara baino gehiago.
- 2024 amaieran lasaitze-zikloa hasiko da.** 2024ko abenduan RBI interes-tasa murrizten hastea espero da. Inflazioak behera egiten jarraitzen du, uzta onei esker.
- Egonkortasun fiskala bilketa handiagoari esker, baina defizita altua oraindik ere.** Defizita -% 4,90era jaitsiko da jarduera ekonomiko indartsutik eratorritako zergen diru-sarrera sendoei esker.

Egonkortasun instituzionala

Nazioarteko harremanak

- BJPren gobernuak gehiago murriztua.** Narendra Modi buru duen BJP alderdiak hauteskundeak irabazi zituen 2024ko maiatzaren hirugarren aldiz jarraian, baina gehiago estuagoarekin; hortaz, bere aliatuen mende dago gobernatzeko.
- Indiak harremanak indartzen jarraitzen du AEBekin eta Ekialde Ertainarekin.** Indiak AEBekin duen lankidetzan sakontzen jarraitzen du defentsaren eta teknologiararen arloan. Txinarekin eta Pakistanekin dituen harremanek tirabiratsuak izaten jarraituko dute.
- Elektronikak eta zerbitzuek sustatutako esportazioak.** Indiak bere defizit komertzial altua hobetzea espero da, esportazioetan izandako gorakadaren ondorioz, batez ere, elektronikan eta produktu farmazeutikoetan.

Enpresa-ingurunea


Merkatuaren erregulazioa

- Inbertsioek eta azpiegituran egindako hobekuntzek sustatutako hazkundeak.** Indiak bere enpresa-ingurunea hobetzen jarraituko du merkataritza liberalizatzeko egindako ahaleginei, AIZri eskainitako pizgarriei eta azpiegitura teknologikoetan egindako aurrerapenei esker. Hala ere, azpiegitura logistikoa ez da nahikoa eta horrek oztopo izaten jarraitzen du.
- Pribatizazioa eta oztopo politikoek mugatutako erreformak.** Gobernuak estatuko enpresa inefizienteak pribatizatzeko sustapenarekin jarraituko du, baina erresistentzia izango du, gobernuan dagoen koalizioak ezarritako murrizketen eta oposizio indartsuaren ondorioz.


Japoniako ekonomiak suspertzen jarraitzen du pixkanaka, baina hazkunde-maila baxuekin. PLDk boterean jarraitzen du, baina barne-eztabaidek kolokan jar dezakete koalizioaren eraginkortasuna



EKONOMIA



NAZIOARTEKO POLITIKA ETA HARREMANAK



ENPRESA GIROA



Hazkunde ekonomikoa

Moneta-politika eta inflazioa

Zerga-politika

- Hazkunde ekonomiko baxua arazo demografikoengatik.** 2024an BPG % 0,6 haztea espero da, eta desazelerazioa izatea aurreko urteekin alderatuta, batez ere, eskulan eskasarengatik.
- Moneta Politikaren normalizazio gradual eta kontrolatua.** BOJ bere Moneta Politika normalizatzen hasi da 2024an, tasa negatiboen aldi baten ostean. Inflazioak gora egin du apur bat yenaren ahultasunagatik.
- Gastu publikoak altua izaten jarraitzen du defentsan eta gizarte-ongizatean.** Ez da espero zerga-defizitak hobera egitea epe laburrean, arazo demografikoei aurre egiteko zerga-sustapen handia egin baita.

Egonkortasun instituzionala

Nazioarteko harremanak

- PLDk boterea mantendu du, baina bere eraginkortasuna barne-gatazken kudeaketaren araberakoa izango da.** PLDren lidergoa aldatu egin zen 2024ko iraileko hauteskundearen ondoren eta, hala, gobernu berria eratuko da. PLD barruko eztabaidek oposizioak baino eragin handiagoa dute politikan.
- AEBekin duen aliantza indartzea eta tentsioak Txinarekin.** Japoniak AEBekin duen aliantza mantentzen jarraitzen du eta defentsa indartu du. Halaber, "arriskuak murrizteko" prozesuarekin jarraitzen du, Txinarekin duen mendeotasuna murrizteko.

Enpresa-ingurunea


Merkatuaren erregulazioa

- Enpresa-ingurunearen hazkunde neurritsua kontsumoari esker.** 2024 eta 2025 artean, Japoniako enpresa-inguruneak hazkunde neurritsua izango du, manufakturan, erdi-eroaleetan eta digitalizazioan egindako inbertsioa sustatzen duten politikei esker. "Kapitalismo berrirako" trantsizioarekin igo egingo da kontsumoa eta horrek enpresen konfiantza sustatuko du.
- Atzerriko inbertsioa sustatzea eta erregulazioa modernizatzea.** Gobernuak zerga-pizgarriak eta laguntza finantzarioa ezarriko ditu inbertsioa erakartzeko sektore estrategikoetan, besteak beste, Adimen Artifizialean. Gainera, zerga-bilketen gaineko araudiak gogortu egingo dira.

Hego Korean, hazkunde ekonomikoak desazelerazioa izan du sektore batzuetan egindako inbertsio mugatuarengatik eta Txinarekiko lehia biziarengatik. Hala ere, berrikuntza teknologikoak nabarmen sustatu du hazkundera enpresa-ingurunean



EKONOMIA



Hazkunde ekonomikoa


Moneta-politika eta inflazioa

Zerga-politika

- Hazkunde ekonomiko desazeleratua kanpo-faktoreen ondorioz.** 2025ean, BPGk % 2,3ko desazelerazioa izatea espero da, makinetan egindako inbertsio mugatuarengatik eta Txinak ibilgailu elektrikoen sektorean ezartzen duen lehiakortasunagatik.
- Moneta Politika arindu egingo da pixkanaka, hazkundera sustatzeko.** Interes-tasak murriztu egingo dira. Hasieran 25 puntuko murrizketa egingo da, 2024 amaieran. Inflazioak kontrolatuta egoten jarraituko du, baina presio inflazionista batzuk izango dira.
- Egonkortasun fiskala sektore estrategikoetan egindako inbertsioei esker.** Zerga-defizit neurritsua mantendu da (% 1,4). Gizarte-segurantzako gastuek gora egingo duten arren zahartze demografikoaren ondorioz, teknologia aurreratuan egindako inbertsioa lehenetsiko da.



NAZIOARTEKO POLITIKA ETA HARREMANAK



Egonkortasun instituzionala

Nazioarteko harremanak

- Atzerapenak legeak formulatzeko garaian, opisizioarekin dauden tirabiren ondorioz.** 2024ko apirileko hauteskundeen ostean, oposizioko alderdi nagusiaren eragina handitu egin da eta horrek are gehiago oztopatuko du erabakiak hartzea.
- Defentsako lankidetzaz indartu da hainbat aliatuarekin, besteak beste, AEB eta Japoniarekin.** Gobernuak Ipar Korearekiko duen jarrera gogortu du eta defentsa-gaitasunak hobetzeko ahalegina egin du.
- Ekoizpen-iturriak dibertsifikatzen jarraitzen du, Txinarekiko mendekotasuna murrizteko.** Produktu elektronikoen eskaria suspertzeak onurak ekarriko dizkio kanpo-merkataritzari, batez ere memoria-txipen moduko sektoreetan.



ENPRESA GIROA



Enpresa-ingurunea

Merkatuaren erregulazioa


- Berrikuntza teknologikoak eta nazioarteko hedapenak enpresa-ingurunearen hazkundera sustatu dute.** Hego Koreak enpresa-ingurune egokia izaten jarraitzen du, azpiegitura digital sendoari eta teknologiko lidergoari esker.
- Erreformat merkatuan konpetentzia handitzeko eta lehiakortasuna hobetzeko.** Hego Korea atzerriko inbertsioa erakartzen saiatzen ari da sektore estrategikoetan, zerga-pizgarriei esker. Hala ere, polarizazio politikoak zaildu egin du erreforma garrantzitsuak onartzea, besteak beste, zerga korporatiboak murriztea edo sindikatuen boterea mugatzea.



Marokoren BPGren hazkundera gero eta handiagoa da urtetik urtera, eta inflazioa kontrolatuta dago. Hala ere, langabezia-tasa altua eta Israelgo Gobernuarekin dituen harremanek ezegonkortasun soziala areagotu dezakete



EKONOMIA



NAZIOARTEKO POLITIKA ETA HARREMANAK



ENPRESA GIROA



Hazkunde ekonomikoa

Moneta-politika eta inflazioa

Zerga-politika

- Hazkunde ekonomiko neurritsua, baina langabezia-tasa altuak oztopatua.** 2025ean, BPGa % 3,1 igotzea espero da, nekazaritzako ekoizpenaren suspertzearen ondorioz. Hala ere, langabezia-tasa altuak egiturazko arazo izaten jarraitzen du.
- Pixkanakako egokitzapenak zerga-tasetan.** 2024ko ekainean, moneta erlaxatzeko ziklo bat hasi zen. Ziklo hori mantentzea espero da; izan ere inflazioa % 2 inguruan egonkortu da.
- Egonkortasun fiskalerako ahaleginak, sektore estrategikoetako gastuarekin** Marokoko Gobernuak zailtasunak izango ditu zerga-defizitaren helburuak betetzeko, gastuaren balizko desbideratzeen ondorioz. Zor publikoak altua izaten jarraituko du.

Egonkortasun instituzionala

Nazioarteko harremanak

- Gobernuaren jarraikortasuna, baina ezinegon sozialaren gorakadarekin.** Erresumak hainbat mehatxu ditu egonkortasun sozialari dagokionez, langabezia-tasa altua eta Israelgo Gobernuarekin dituen harremanak direla eta.
- Aurrerapausoak Saharako gatazkan eta harremanak hobetzea Frantziarekin.** Marokoko kanpo-politikaren oinarrian jarraitzen du Sahara Mendebaldearen burujabetza nazioartean aitortzeak, Frantziaren laguntzarekin.
- Esportazioak berreskuratzea eta defizit altuari eustea.** Balantza komertzialak defizita izaten jarraituko du, baina automobilen eta ehunen esportazioak handitzea espero da.

Enpresa-ingurunea


Merkatuaren erregulazioa

- Atzerriko Inbertsioa erakarriko da, baina egiturazko oztopoekin lan-merkatuan.** Marokoren enpresa-inguruneak apur bat hobera egitea espero da 2025ean, inbertsio pribatua erakartzeko erreformei esker. Hala ere, lan-merkatuaren arazoak oztopo izaten jarraituko dute, besteak beste, gazteen langabezia-tasa altuak eta gaitasun faltak.
- Pixkanakako aurrerapausoak zerga-politikan eta lehiakortasunean.** ETE-ei laguntzen jarraituko zaie, baina zailtasunak izango dituzte enpresa handiekin lehiatzeko. Marokoren helburua izango da merkataritza-harremanak indartzea Afrikarekin eta Ekialde Ertainarekin, Europaren hazkunde ahula dela eta.


Hazkunde ekonomiko mugatua langabezia-tasa altua eta muga logistiko eta energetikoak direla eta. Zerga-defizitak handitzen jarraitzen du estatuko enpresen erreskatearen ondorioz. Batasun Nazionaleko gobernu berriak ANCen hegemoniarekin amaitu du



EKONOMIA



NAZIOARTEKO POLITIKA ETA HARREMANAK



ENPRESA GIROA



Hazkunde ekonomikoa

Moneta-politika eta inflazioa

Zerga-politika

- Barne- zein kanpo-faktoreek mugatutako hazkunde ekonomikoa.** Gobernu berria eratzeak merkatuaren konfiantza indartuko du. Hala ere, zailtasun handiak daude, hala nola langabezia masiboa eta muga logistiko eta energetikoak.
- Moneta Politika malgutu egingo da pixkanaka eskaria estimulatzeko.** 2021tik tasa-igoera handiak izan ostean, 2024ko uztaillean % 8,25ean mantendu ziren. Inflazioak helburuarekin (% 3-6) jarraitzea espero da, baina hegakortasunaren presioarekin.
- Zerga-egonkortasuna, baina gastu sozialen eta estatukoaren arriskuekin.** Gobernu berriak erronkak izango ditu defizita murrizteko, estatuko enpresen azken erreskateen ondorioz. Zor publikoak handitzen jarraituko du.

Egonkortasun instituzionala

Nazioarteko harremanak

- ANCren hegemoniaren amaiera eta batasun nazionaleko gobernu.** 2024ko maiatzeko hauteskundeetan, ANCK gehiengoa eta 30 urteko domeinua galdu zituen. Hala, ANCK boterea partekatu behar izan zuen 30 urtetan lehen aldiz.
- Harreman hobeak mendealdearekin eta tentsioak AEBekin Gazako gatazkaren ondorioz** Mendealdearekin zituen harremanak hobetu zituen AGOA Foroaren ostean, baina Israel-Gaza gatazkan duen jarrerak tentsioak sorrarazi dizkio AEBekin, gatazka diplomatiko horrek isun ekonomikoak ekar dakizkioke edo Hegoafrika AGOAtik kaleratzea.

Enpresa-ingurunea

Merkatuaren erregulazioa


- Bultzada inbertsio pribatuari eta azpiegiturei, oztopoekin.** Herrialdeak erakargarria izaten jarraitzen du atzerriko inbertsioarentzat, baliabide mineralei, harreman komertzialei eta energia- eta garraio-azpiegitura gero eta handiagoari esker. Hala ere, erronkak ditu oraindik ere, besteak beste, laneko kostu handiak eta ziurgabetasun juridikoa.
- Lan- eta zerga-erreformak sindikatuen erresistentziarekin.** 2024 eta 2025erako araudiaren panorama markatuko du ingurune politiko desafiatzaileak eta horrek politikak ezartzea atzeratu dezake, batez ere, lan-erreformen kasuan, sindikatuen erresistentziaren ondorioz.




Hazkunde ekonomiko egonkorra, petrolioarena ez den dibertsifikazioak eta OPEP+en ekoizpenaren gorakadak sustatuta. Lidergo politikoa sendotu egin da eta Iranekin kautelazko diplomazia izatea erabaki da



EKONOMIA



NAZIOARTEKO POLITIKA ETA HARREMANAK



ENPRESA GIROA



Hazkunde ekonomikoa

Moneta-politika eta inflazioa

Zerga-politika

- Hazkunde ekonomiko egonkorra.** Petrolioaren ekoizpena pixkanaka suspertzea espero da, OPEP+en ekoizpenean izandako gorakadak sustatuta. Petrolioarena ez den hazkunde ekonomikoa mugatua izango da, Asiako eskariaren beherakadarengatik.
- Feden ziklora bideratuta eta inflazio neurritsua** Arabiar Emirerri Batuek erreserba federalaren erabakien gaineko jarraipena egiten jarraituko dute, eta tasak murriztuko dira 2024ko irailean. Inflazioa kontrolpean mantentzea espero da.
- Petrolioarenak ez diren diru-sarrerak dibertsifikatzeko ahaleginak.** Gobernuak kautelazko Zerga Politika mantenduko du, eta finantza publikoak petrolioaren hegarkotasunarekiko hain zaurgarriak ez izaten ahaleginduko da.

Egonkortasun instituzionala

Nazioarteko harremanak

- Lidergo politikoa sendotzea.** Erronka ekonomiko globalak izan arren, Arabiar Emirerri Batuek epe laburrean egonkortasun politikoa mantentzea espero da, egungo jekearen semea Abu Dabiko oinordeko printze izendatu eta gero.
- Dibertsifikazio komertzialean eta Iranekiko zuhurtziazko diplomazian arreta jartzea** Kanpo politikaren oinarrian egongo da Asiarekin harreman komertzialak indartzea, eta Estatu Batuekin lotura sendoak mantentzea. Herrialdeak harreman ekonomikoetan sakondu nahi duen arren Iranekin, Irango programa nuklearraren tentsioek eta Israelen eta Hamasen arteko gerrak mugatu egingo dute harreman hori.

Enpresa-ingurunea


Merkatuaren erregulazioa

- Atzerriko inbertsioa sustatzea eta dibertsifikazio ekonomikoa.** Arabiar Emirerri Batuko enpresa-inguruneak hobera egiten jarraituko du atzerriko inbertsioa sustatzeko politikei esker eta aukera emango du enpresen jabetza osoa atzeritarrena izateko. Hala ere, zerga korporatiboaren azken gorakaden ondorioz, garrantzitsua da enpresa-giroaren bilakaera monitorizatzea.
- Erreforma merkatuaren erregulazioan, lehiakortasuna sustatzeko.** Sektore pribatua indartzeko ahaleginetan, bermeak eskaintzen ari dira eta lizitazio publikoetarako sarbidea sustatzen. Halaber, gobernuarekin lotutako enpresen menderakuntza murriztu nahi dute.


Hazkunde ekonomikoaren aurreikuspenak neurritsuak turismoari esker. Inflazioak oso altua izaten jarraituko du eta horrek ezegonkortasun sozialaren arriskua handituko du. Hala ere, 2025ean hobera egitea aurreikusten da




EKONOMIA



NAZIOARTEKO POLITIKA ETA HARREMANAK



ENPRESA GIROA



Hazkunde ekonomikoa

Moneta-politika eta inflazioa

Zerga-politika

Egonkortasun instituzionala

Nazioarteko harremanak

Enpresa-ingurunea

Merkatuaren erregulazioa

- Hazkunde ekonomiko neurritsuaren aurreikuspenak.** BPGren hazkunde % 3,40ra igoko da 2025ean, baina gobernuaren helburuen azpitik geratuko da oraindik ere. Azelerazio horren arrazoi nagusia da truke-tasa malgutu izana eta horrek turismoarentzat dituen ondorio positiboak.
- Helburua izango da inflazioa kontrolatzea monetan egindako egokitzapenen bitartez.** 2025ean tasak jaitea espero den arren, inflazio iraunkorrak egokitzapen hori atzeratuko du. Ez da % 9ko helburura iritsiko 2026ra arte.
- Erronkak zorra eta zerga-defizita kudeatzeko garaian.** Egoera fiskalak ahula izaten jarraitzen du eta ez da aldaketa handirik aurreikusten, zorraren zerbitzuak duen kostu altuarengatik eta sektore publikoan izandako soldata-igoerarengatik.


- Sisiren hirugarren agintaldia eta ezegonkortasun sozialaren arriskua.** Sisik kontrol ia erabatekoa izango du 2029ra arte. Hala ere, panorama zaila izango da familiei eragiten dien inflazio handia dela eta.
- Eskualdeko gatazken inpaktua eta tentsioak Israelekin.** Egiptok erronka geopolitikoak ditu oraindik ere, hala nola Sudango gerra zibila, Libiako ezegonkortasuna, eta Israelen eta Hamasen arteko tentsioak.
- Defizita merkataritza-balantzan eta arazoak Suezko Kanalean.** Hutiek Itsaso Gorrian egindako erasoen ostean, kanaleko trafikoa murriztu egin da eta defizit komertzialak nabarmen egin du gora.

- Atzerriko Inbertsioaren pizgarriak eta azpiegituraren bilakaera.** Egiptoko Gobernuak Atzerriko Inbertsioa sustatzen jarraitzen du zerga-pizgarrien, lizentzia azkarren eta lurretako deskontuen bitartez, eta, bitartean, estatuko parte-hartzeak saltzen ditu. Gainera, azpiegitura-proiektu garrantzitsuak garatuko dira, hala nola monorrail bat hiriburu administratibo berrian.
- Zerga-erreformak eta finantzaketa-baldintzak ahulak.** Egipto zerga-arau berriak aplikatzen aritu da azkenaldian, sektore publikoarentzako salbuespenekin amaitzeko. Finantzaketa-baldintzek zailak izaten jarraituko dute, interes-tasa altuak direla eta.


Hazkunde ekonomikoaren azelerazioa Dangote findegiak sustatuta, zergen erronkekin eta inflazio oso altuarekin. Gainera, ezegonkortasun sozialerako arrisku iraunkorra dago, eskualdearen eragina ahultzen ari baita



EKONOMIA



NAZIOARTEKO POLITIKA ETA HARREMANAK



ENPRESA GIROA



Hazkunde ekonomikoa

Moneta-politika eta inflazioa

Zerga-politika

- Hazkunde ekonomikoaren azelerazioa.** BPGren hazkunde % 3,4 handituko da 2025ean, Dangote findegiaren ekoizpenak bultzatuta.
- Inflazioaren beherakada geldoa.** Tasen % 27,25eko errekorra izan da 2024an. Murrizketak espero diren arren, inflazioak gora egiten jarraituko du 2024 amaierarako. Desinflazioa geldoa izango da eta ez da aldaketa handirik aurreikusten epe laburrean.
- Zerga-erronkak eta zorpetze garestiak epe luzera.** 2025ean defizita murriztea aurreikusten da, erregaien dirulaguntzak kenduko direlako, baina zorraren kostu altuak eta azpiegiturako gastuaren planak erronka izaten jarraituko dute.

Egonkortasun instituzionala

Nazioarteko harremanak

- Tinuburen gobernuak ez du osperik eta protesten arriskua dago.** Ezarritako erreforma ekonomikoek bizi-kostuaren krisia larriagotu dute eta horrek protesta masiboen arriskua handitzen du.
- Eragin geroz eta txikiagoa Afrika Mendebaldean.** Tamaina eta posizio estrategiko ona dituen arren, Nigeriak Afrika Mendebaldean duen eragina murrizten ari da, erronka ekonomikoen eta barne-segurtasuneko erronken ondorioz.
- Hobekuntzak merkataritzako balantzaren eta kanpo-lehiakortasunean.** Nairaren balio-zuzenketari eta Dangote findegiaren ekoizpenari esker, datozen aldietan merkataritzako balantza superabitean mantentzea espero da.

Enpresa-ingurunea


Merkatuaren erregulazioa

- Bilakaera eta erronkak enpresen aldeko ingurunean.** Politika ekonomikoaren oinarrian dago enpresen aldeko ingurunea sustatzea eta merkataritzako barrerak kentzea, inflazioa murrizteko. Hala ere, enpresek jarduteko ingurune zaila dute, langile kualifikatu gutxi daudelako, laneko kostuak handiak direlako eta lan-merkatua desorekatua.
- Erregulazio-erreformak eta oztopo iraunkorrak.** Erregulazioak oztopo izaten jarraitzen du inbertsioentzat, eta ziurgabetasunak eta zerga-erreformen argitasun faltak are gehiago larriagotzen dute. Horrek atzera botatzen du atzerriko parte-hartzea sektore estrategiko batzuetan, esaterako, petrolioan.


Israelgo ekonomia pixkanaka suspertuko da 2025ean, baina defizitak handia izaten jarraituko du gerraren kostuen ondorioz. Gainera, barne-tentsioek eta kanpo-gatazkek inbertitzaileen konfiantza oztopatzen jarraituko dute



EKONOMIA



NAZIOARTEKO POLITIKA ETA HARREMANAK



ENPRESA GIROA



Hazkunde ekonomikoa

Moneta-politika eta inflazioa

Zerga-politika

- **Suspertze ekonomiko geldoa gerraren ostean.** Gatazkak inpaktu negatiboa izan du Israelgo ekonomian, eta 2024an % 0,3ko hazkundea proiektatu da. Barne-eskaria ahul mantenduko da gerrak irauten duen bitartean.
- **Inflazio hegakorra eta Moneta Politika mugatua.** Hegakortasunak eta inflazioak eragotzi egingo dute 2024ko urtarrilean Moneta Politikan hasitako murrizketekin jarraitzea. Inflazioa altu mantentzea espero da, gerraren ondorioengatik.
- **Zerga-defizit altua eta gatazka osteko zerga-neurriak.** Gerrak larri kaltetu du Israelgo zergen kudeaketa, gastua handitu du eta zergak biltzea mugatu du.

Egonkortasun instituzionala

Nazioarteko harremanak

- **Barne-tentsioa eta gobernua kolapsatzeko arriskua.** Israelek epe laburrean politikoki ezegonkorra izaten jarraitzea aurreikusten da, Gaza eta Libanoko gatazken ondorioz.
- **Eskualdeko gatazka larriak eta tentsio globalak.** Israelek nazioarteko presio handia jasoko du bere ekintzak mugatzeko, bai Gazan, bai Libanon. Bitartean, Estatu Batuek zuzendutako ahalegin diplomatikoekin eskalada handiagoa ekidingo da. Iranek eskualdean duen eragina eta azken bonbardaketa gurutzatuak izango dira Israelen kezka nagusia.

Enpresa-ingurunea


Merkatuaren erregulazioa

- **Enpresen erresilientzia gatazka-garaietan.** Israel eta Hamasen arteko gerrak inpaktua izan arren, Israelgo ekonomia indartsu dago, adostasun zabala duelako politika ekonomiko egonkorretan eta inbertsioak egiteko ingurune egokia eskaintzen duelako. Sektore garrantzitsuetako konpetentziak sustatzen du efizientzia, esaterako, elektrizitateak eta kontsumitzaileentzako kredituak.
- **Erreformak eta atzerriko inbertsioa hegakortasunaren aurrean.** Israelek Atzerriko Inbertsio zuzena sustatzen jarraitzen du, batez ere energia eta teknologia handiak gisako sektoreetan. Hala ere, barneko ezegonkortasun politikoa eta eskualdeko tentsioak erronka iraunkorrak dira.


Frantziako ekonomiak hazkunde neurritsua izango du 2024an eta 2025ean, kanpo-eskari ahula dela eta. Egonkortasun instituzional erlatiboko aldia dator, Michel Barnier lehen ministro izendatu ostean



EKONOMIA



NAZIOARTEKO POLITIKA ETA HARREMANAK



ENPRESA GIROA



Hazkunde ekonomikoa

Moneta-politika eta inflazioa

Zerga-politika

- Hazkunde ekonomiko geldoa, barne-eskariak eta nazioarteko ekitaldiek sustatuta.** Joko Olinpikoek hazkunde ekonomiko txiki bat sustatu dute 2024ko 3. hiruhilekoan. Hala ere, kanpo-eskari ahulak, batez ere Alemaniarenak, mugatu egingo du hazkundera.
- Inflazioaren bilakaera positiboa eta egokitzapenak Moneta Politikan.** Inflazioak jaisten jarraituko du eta EBZk "datuen araberako" ikuspegia mantenduko du, tasen etorkizuneko murrizketak ebaluatzeko.
- Defizit altua eta zerga-egonkortasunerako erronkak.** Trantsizio ekologikoarekin, zerbitzuen hobekuntzarekin eta defentsako gastuaren gorakadarekin lotutako gastuak finantza publikoak presionatzen jarraituko du.

Egonkortasun instituzionala

Nazioarteko harremanak

- Gobernu ahula parlamentuaren zatiketaren eraginez.** Michel Barnier lehen ministro izendatu izanak argitasun apur bat ekarri du hauteskunde aurreratuaren ostean, baina ez da espero egonkortasun politiko handirik ekartzea.
- Macronek autonomia estrategikoa sustatu du zailtasun batzuekin.** Barneko ezegonkortasun politikoak inpaktu txikia izango du kanpo politikan, presidentearen esku baitago. Macronek autonomia estrategiko handiagoa sustatzen jarraituko du EBrentzat eta defentsan, energian eta elikaduran lankidetzan aritzean oinarrituko da.
- Merkataritzako defizita pixkanaka suspertzen.** Defizita egonkortu egin da eta 2025ean apur bat hobetzen jarraitzea espero da, zerbitzuek sustatuta.

Enpresa-ingurunea


Merkatuaren erregulazioa

- Gobernuaren erantzuna krisi energetikoaren aurrean.** Frantziako Gobernuak neurriak ezarri zituen energiaren prezioen gorakadaren efektuak arintzeko, baina laguntza horiek kenduz joan dira pixkanaka 2024an. Ibilgailu elektrikoak kargatzeko puntuen instalazioan eta 5G sarearen zabalpenean aurrerapauso nabarmenak egin dira.
- Merkatu nazionala atzerriko inbertsionetatik babestea.** Atzerriko Inbertsioaren aldeko politika mantendu da, baina sektore estrategikoak babestea lehenetsi da. 2024 hasieratik, indartu egin da sektore estrategikoetan atzerriko inbertsioak egiteko beharrezkoa den baimena eskatzen duen araudia.

Alemaniak hazkunde ekonomiko neurritsua izaten jarraitzen du, hein batean, eskari global ahularen ondorioz. Azaroan kolapsatu egin zuen gobernuak eta horrek ekarri du hauteskundeak 2025eko otsailera aurreratzea



EKONOMIA



NAZIOARTEKO POLITIKA ETA HARREMANAK



ENPRESA GIROA



Hazkunde ekonomikoa

Moneta-politika eta inflazioa

Zerga-politika

- Suspertze ekonomiko oso neurritsua eta ahultasun industrialaren inpaktua.** Eskari global ahulak, batez ere manufaktura-sektorean, hazkunde mugatua mantenduko du. Aldiz, zerbitzuen sektoreak industriak baino jarduera hobia izango du.
- Inflazioaren desazelerazioa.** 2024an % 2,6ko inflazioa proiektatzen da eta 2023ko % 6tik jaitسي da. Energiaren eta elikagaien prezioen moderazioak sustatuko du hori.
- Zorren geldialdiak mugatutako aurrekontua.** 2025erako aurrekontuaren helburua da enplegua sustatzea eta inbertsioa handitzea. Hala ere, zorren geldialdiak ezarritako murrizketek mugatu egingo dute gastua azpiegitura berdean eta garraioan.

Egonkortasun instituzionala

Nazioarteko harremanak

- Koalizioaren kolapsoa.** 2025ean, hauteskunde aurreratuak egingo dira 2024ko azaroaren gobernu-koalizioak kolapsatu ostean. Olaf Scholzen Alderdi Soziodemokratak (SPD) sendotasuna galtzea espero da, Friedrich Merzen zentro-eskuineko CDU alderdiaren onurarako.
- Presio militarra eta erronkak Europan.** Alemaniak NATOren helburua beteko du lehen aldiz: BPGren % 2 defentsara bideratzea. Hala ere, zailtasunak ditu aurrekontu militarra handitzeko.
- Merkataritzako superabita kompetentzia globalaren presiopean.** Merkataritzako superabita % 5-6an mantenduko da 2025era arte, baina barne-ekariaren gorakadak beheranzko presioak sortuko ditu.

Enpresa-ingurunea


Merkatuaren erregulazioa

- Egonkortasun makroekonomiko neurritsuak merkatu-aukerak sustatuko ditu.** Alemanian igo egin dira merkatu-aukerak, trantsizio energetikora eta digitalizaziora bideratuta. Azpiegituran inbertitzen jarraitzen du, bereziki energia garbietan, esaterako hidrogenoan, sare elektrikoa eta gas naturalaren terminalak hobetuz.
- Ikuskapen handiagoa atzerriko inbertsioetan.** Alemaniako Gobernuak atzerriko inbertsioaren alde egiten jarraitzen du, baina kontrol zorrotzagoa ezarri du sektore estrategikoetan, EBren jarrerarekin bat etorritik. Komunitate kanpoko kapitalaren fluxuetan ikuskapen politiko handiagoa aurreikusten da.


Hobekuntza ekonomiko mugatua, kontsumoak eta inbertsioak sustatua, baina zerga-erronka iraunkorrekin. Meloniren gobernuaren egonkortu egin da oposizioaren zatiketaren ondorioz



EKONOMIA



NAZIOARTEKO POLITIKA ETA HARREMANAK



ENPRESA GIROA



Hazkunde ekonomikoa

Moneta-politika eta inflazioa

Zerga-politika

- Zabalpen neurritsua, kontsumo pribatuak eta inbertsioak sustatua.** BPGa % 0,9 soilik handitzea espero da 2024an, baina azken 20 urtetako batezbestekoa gaindituz (% 0,3). Soldaten eta inbertsioenigoerak ekarriko dute hori.
- Inflazioaren desazelerazio nabarmena.** Lehengaien prezioen beherakadak sustatuko du murrizketa hori.
- Defizit handia eta zor subiranoak eragindako kezkak.** Finantzak Europako prekarioenak dira eta desfaseak izan dira azken proiektioetan, eraikuntzaren dirulaguntzak deuseztatzeke zailtasunengatik. Zorraren interesak ordaintzeko BPGren ehunekoaren pixkanakako gorakada kezkagarria da.

Egonkortasun instituzionala

Nazioarteko harremanak

- Gobernu egonkorra eta oposizio zatitua.** Meloniren Gobernuak bere egonkortasuna finkatu du, oztoporik gabeko legeen onarpenaren ondorioz. Oposizioak zatituta jarraitzen du.
- Babesa Ukrainari eta tentsioak EBrekin. Kanpo-politikak Europako lankidetzara bideratuta jarraitzen du.** Boterean dauden alderdien joera populistek ere tirabirak sor ditzakete Europar Batasunarekin.
- Merkataritzako superabita energiaren prezioen beherakadaren ondorioz.** Italiak superabita erregistratu du 2024ko merkataritza-balantzaren, energia-prezioen beherakadarengatik. Herrialdea oso mendekoa da sektore horretan.

Enpresa-ingurunea


Merkatuaren erregulazioa

- Hobekuntza mugatuak ingurune ekonomikoan eta digitalizazioan.** Italiak hobekuntza txikiak egin ditu bere enpresa-ingurunean, batez ere arlo makroekonomikoan eta kanpo-merkataritzan, Suspertze eta Erresilientzia Plan Nazional partzialari esker. Hala ere, gobernuaren eraginkortasun txikiaren moduko arazoak erronka dira oraindik ere enpresentzat.
- Aldaketak zergetan eta bankaren egonkortze geldoa.** Zerga-sistema erreformatzeko eta banka-sektorearen efizientzia hobetzeko ahaleginak egin arren, zerga-ihesak arazo izaten jarraitzen du. Zergen sinplifikazioak hainbat oztopo ditu administrazio-gaitasun mugatuaren ondorioz.


Europarazko ekonomia handienetakoa izan duen herrialdeetako bat da Polonia. Hala ere, inflazioa eta defizita altuak dira oraindik. Tusken gobernuak egonkor jarraitzen du eta estatuaren esku-hartzea murrizten ahalegintzen ari da



EKONOMIA



NAZIOARTEKO POLITIKA ETA HARREMANAK



ENPRESA GIROA



Hazkunde ekonomikoa

Moneta-politika eta inflazioa

Zerga-politika

- Bultzada ekonomikoa kontsumoaren eta inbertsioaren gorakadarengatik.** BPGaren % 3,2ko hazkundera espero da 2024an, kontsumo publiko eta pribatuak sustatuta. Europako suspertze ziklikoak Poloniako esportazioen eskaria handituko du.
- Tasak mantentzea inflazio altuaren ondorioz.** 2024 amaieran, inflazioak % 5 gaunditzea espero da, energiarentzako dirulaguntzak kenduko direlako. 2025 amaierara arte ez da espero tasak jaitea.
- Gastu publikoaren gorakada eta defizit altua.** Defizita altu mantenduko da hainbat arlo garrantzitsutan gastua handitu berri delako, esaterako, defentsan, osasunean eta programa sozialetan.

Egonkortasun instituzionala

Nazioarteko harremanak

- Koalizio askotarikoa eta presidentetzaren erronkak.** Tusken gobernuak egonkor mantenduko da. Hala ere, alderdien arteko barne-tentsioek gora egin dezakete erreforma garrantzitsuak jorratu ahala.
- Harremanak hobetzea EBrekin eta eskualdeko lidergotza.** EBrekiko harremanek hobera egin dute nabarmen Tusken lidergotzaren pean. Hainbat urtez tentsioa egon da EBren ustez demokraziaren aurkakoak ziren erreformengatik, baina, orain, Europako funts garrantzitsu batzuk desblokeatu dira.
- Defizit komertziala eta Europako funtsak.** Merkataritzako balantzea superabitetik defizitera igaroko da 2024an, kontsumoak eta barne-inbertsioak sustatutako inportazioen gorakadaren ondorioz. 2025ean suspertzea espero da, Europako funtsei esker.

Enpresa-ingurunea

Merkatuaren erregulazioa


- Enpresa-ingurune erakargarria eta aukera garrantzitsuak.** Poloniaren ekonomiak erakargarri izaten jarraituko du eskualdearen barruan, EBko kide delako, laneku oso kualifikatuarengatik, merkatuaren tamainarengatik eta finantza-sektore erresilientearengatik. Hala ere, araudiaren oztopoek, ziurgabetasun politikoak eta laneko murrizketek aurrerapauso handiagoak oztopatzen dituzte.
- Estatuaren esku-hartzea murriztea.** Tusken gobernuak estatuaren esku-hartzea murrizten saiatzen ari da industria garrantzitsuetan eta araudiaren erregulartasuna hobetzen, Atzerriko Inbertsioa erakartzeko.




Erresuma Batuko hazkundeak neurritsua izaten jarraituko du. Starmerren gobernuak egonkortasuna du gehiengo parlamentarioari esker. Hala ere, 2024ko abuztuko istiluek legeintzaldi-hasiera zaildu zuten



EKONOMIA



NAZIOARTEKO POLITIKA ETA HARREMANAK



ENPRESA GIROA



Hazkunde ekonomikoa

Moneta-politika eta inflazioa

Zerga-politika

- Hazkunde ekonomiko neurritsua.** 2024an, % 1,1eko gorakada txiki bat espero da. Gobernu laborista berriaren politikak inbertsioa sustatuko du energian, etxebizitzaren eraikuntzan eta azpiegituran.
- Moneta Politikaren pixkanakako egokitzapena eta zerbitzuen prezioek eragindako presioa.** Inflazioa % 2ko helburutik gora geratu da, zerbitzuen prezio altuaren ondorioz. Tasak pixkanaka jaitea espero da, eta 2025 amaierarako % 3,5era jaitea.
- Zuhurtzia inbertsioaren gorakadarekin eta biltzeko beharrek.** Zerga-defizita % 4aren gainetik mantenduko da 2024an. Zerga-arauak aldatzea espero da sektore jakin batzuetan inbertsioa finantzatzeko.

Egonkortasun instituzionala

Nazioarteko harremanak

- Gobernu laborista sendoa, baina erronka sozialak dituen.** Starmerren gobernuak gehiengo zabala du parlamentuan eta horrek egonkortasuna ematen dio. Kontrol hori izan arren, 2024ko abuztuan izandako istilu sozialek hasiera konplikatu zuten.
- Konpromisoa Ukrainarekin eta tentsio potentzialak AEBekin.** Erresuma Batuak Ukrainaren aliatu sendoa izaten jarraitzen du eta zigorrak mantendu dizkio Errusiari. Hala ere, Trumpen garaipena arriskutsua da harreman transatlantikoentzat.
- Merkataritzako defizita eta Brexitaren efektuak.** Erresuma Batuak merkataritzako defizita izaten jarraituko du. Brexitaren ostean lehentasunezko terminoak galdu izanak eragina izaten jarraituko du lehiakortasunean.

Enpresa-ingurunea

Merkatuaren erregulazioa


- Brexitak Britainiako enpresa-ingurunea markatzen jarraitzen du.** Erresuma Batuak erakargarria izaten jarraitzen duen arren sektore garrantzitsu batzuetako inbertsioarentzat, esaterako, bioteknologia-entzatzat, software-entzatzat eta finantza-zerbitzuentzatzat, hirugarren herrialdeekin merkataritza-akordio hobeak negoziatzeko gaitasunak ez du konpentsatu EBren lehentasuneko terminoen galera.
- Estatuaren esku-hartze handiagoa.** Erresuma Batuko atzerriko inbertsio-politikek irekiak izaten jarraitzen dute, baina ikuspegi zorrotzagoa dute nazioarteko segurtasunean. Horrek hainbat herrialderen inbertsioa mugatzen du, esaterako, Txina eta Errusiarena. Estatuko esku-hartzea indartu egingo da, batez ere garraioan.




Turkiako ekonomiak hazten jarraituko du, % 3 inguru, nahiz eta inflazioa kontrolik gabe egon. Polarizazio handiak eta Erdoganen botere autoritarioak gatazka sozialen arriskua handitu dezakete



EKONOMIA



NAZIOARTEKO POLITIKA ETA HARREMANAK



ENPRESA GIROA



Hazkunde ekonomikoa

Moneta-politika eta inflazioa

Zerga-politika

- **Desazelerazio ekonomikoa 2024an eta suspertze txikia 2025ean.** Turkiako ekonomiak hazkunde neurritsua izango du 2024an (% 2,9). Politika ekonomiko zorrotzenek ahuldu egin dute barne-eskaria. 2025ean, gorakada espero da, monetaren testuingurua hobea izango delako.
- **Inflazio altuaren pixkanakako beherakada.** 2024an, inflazioak oso altu jarraituko du, hedapen-politiken eta liraren ahultasunaren ondorioz. Monetaren malgutze-ziklo bat espero da 2024 amaierarako.
- **Defizit altua lurrikaren osteko gastuengatik.** Defizitak handitzen jarraituko du 2024an, pentsioen gastu handiagoaren eta lurrikarek eragindako berreraikuntza-kostuen ondorioz.

Egonkortasun instituzionala

Nazioarteko harremanak

- **Erdoganen botere autoritarioa finkatzea.** Erdoganek boterean jarraituko du 2028ra arte, eta horrek egonkortasun politikoa bermatzen du. Hauteskundeen ondoren liskar sozialak izateko probabilitatea txikia den arren, polarizazio handiak eta inflazio altuak haserre soziala eragin dezakete.
- **Kanpo-politika independentea eta tentsioak mendealdearekin.** Turkia NATOKo kide izan arren, bere kanpo-politika independentea eta transakzionala da, eta horrek tentsioak sorrarazi dizkio mendealdeko aliatuekin, besteak beste, EB eta AEBekin.
- **Defizitaren beherakada neurritsua.** Merkataritzako defizitak altua izaten jarraituko du, batez ere, inportazioen eskaria txikiagoa delako.

Enpresa-ingurunea

Merkatuaren erregulazioa


- **Enpresa-ingurunean indargune handiak eta ahultasunak.** Kokapen estrategikoa, merkatu handia eta hedatzeko aukera erakargarriak izango dira enpresentzat. Hala ere, ekonomiaren hegakortasunak eragindako ziurgabetasuna erronka da negozioentzat, eta, ondorioz, eskaria murriztu daiteke eta finantzaketarako aukerak mugatu.
- **Estatuaren esku-hartzea eta alborapenak kompetentzian.** Turkiak atzerriko inbertsioa sustatzen jarraitzen duen arren, arazo handiak daude merkatuko kompetentziari eta erregulazioari dagokionez. Estatuak sektore garrantzitsuetan egiten duen esku-hartzeak, faborismoak eta ustelekeriak kompetentzia askea mugatzen dute.




Txekiako Errepublika ekonomia egonkor gisa finkatu da barne-ekonomiaren gorakada handiari esker. Enpresa-ingurunea egokia da, baina automobilgintza sektorearen oso mende dago



EKONOMIA



NAZIOARTEKO POLITIKA ETA HARREMANAK



ENPRESA GIROA



Hazkunde ekonomikoa

Moneta-politika eta inflazioa

Zerga-politika

- Hazkunde ekonomikoa azkartzen ari da kontsumo pribatuaren susperraldiari esker.** 2024rako hazkunde neurritsua espero da eta % 2,5eko igoera 2025ean, barne-ekonomiaren gorakada indartsuari esker.
- Moneta Politikaren pixkanakako malgutzea.** Urteko azken hilabeteetan tasak murrizten jarraitzea espero da. Inflazioa xede-tartearen barruan mantenduko da.
- Zerga-egonkortasuna eta defentsako gastuen gorakada.** Zerga-egonkortasuna lehentasuna izan arren, defizitak % 2,2ko helburua gainditzea espero da 2024an, arlo garrantzitsu batzuetan izandako gastuaren gorakadarengatik, besteak beste, defentsan eta pentsioetan.

Egonkortasun instituzionala

Nazioarteko harremanak

- Koalizio-gobernu sendoa, baina barne-tentsioekin.** 2025eko hauteskundeak egin arte gobernuak boterean irautea espero da. Tentsioek gora egin dezakete hauteskundeak gerturatu ahala.
- Konpromiso sendoa NATOrekin eta EBrekin eta gastu handiagoa defentsan.** Txekiar Errepublikak jarrera irmoa du NATOren eta EBren alde eta defentsako gastua % 2,1era igo du 2024an.
- Superabit murriztua.** 2024an, superabita aurreikusten da balantza komertzialean eta 2025ean defizitean sartuko da herrialdea. Barne-kontsumoaren gorakadak eta inportazioen eskariei superabita murriztuko dute.

Enpresa-ingurunea


Merkatuaren erregulazioa

- Enpresa-ingurune egonkorra, baina oztopoekin.** Enpresa-ingurunea egonkorra da eta banka-sektorea sendoa. Horrek inbertsio pribatua sustatzen du. Hala ere, herrialdeak hainbat erronka ditu, automobilaren industriarekiko duen mendekotasunagatik.
- Merkatuaren erregulazioa zaindu behar.** Txekiako Gobernuak ingurune egokia eskaintzen du atzerriko inbertsioarentzat, baina konpetentzia-politikek hainbat oztopo dituzte, zerga korporatibo altuen ondorioz. Erreforma liberalak moteldu egin daitezke 2025ean ANO alderdiaren gorakadarekin. Horrek estatuaren esku-hartzeak eragin ditzake hainbat sektore garrantzitsutan, adibidez, energian.


Norvegiak sustapen ekonomikoari ekin dio 2024an eta sustapen handiagoa izango du 2025ean. Koalizio-gobernua egonkorra da, baina euskarri-oinarria ahulduta dago apur bat. Enpresa-ingurunea erresilientea da, txikia izan arren



EKONOMIA



NAZIOARTEKO POLITIKA ETA HARREMANAK



ENPRESA GIROA



Hazkunde ekonomikoa

Moneta-politika eta inflazioa

Zerga-politika

- Azkartze ekonomiko txikia 2024an eta handiagoa 2025ean.** Offshore sektorean eta esportazioetan egindako inbertsioaren gorakadak ekonomiaren azelerazio txikia sustatuko du, Europaren energia-eskari egonkorriari esker.
- Moneta-politika mugatzailea, baina etorkizunean erlaxatu egingo da.** 2024ko abuztuan tasak mantendu ziren eta urteko azken hiruhilekora arte aldaketarik ez izatea espero da. Orduan, erlaxatzea espero da, inflazioa % 2ko helburura gerturatuko delako.
- Zerga-superabit sendoa, petrolioaren diru-sarrerek sustatua.** Zergen superabitak munduko altuenetako bat izaten jarraituko du, petrolioaren eta gasaren diru-sarrerei eta funts subirano nazionalari esker.

Egonkortasun instituzionala

Nazioarteko harremanak

- Koalizio-gobernu egonkorra, erronka batzuekin.** Koalizio-gobernuak egonkortasuna mantentzea espero da 2025eko irailera arte, nahiz eta gehiengo osorik ez izan. Hala ere, ekonomia ahulak euskarri-oinarriaren zati bat ahuldu du.
- Harremanak EBrekin eta Europako segurtasunari babesa.** Errusiak Ukraina inbaditu zuenetik, Norvegia eragile garrantzitsua izan da EBri gasa hornitzeko, eta Errusia ordezkatu du partzialki hornitzaile nagusi gisa.
- Merkataritzako superabit sendoa.** Lehengaien prezioek behera egin arren eta inportazioek gora, Norvegiak munduko superabitik handienetako bati eutsiko dio.

Enpresa-ingurunea


Merkatuaren erregulazioa

- Enpresa-ingurune egonkorra, baina aukera mugatuarekin merkatuaren tamainaren ondorioz.** Enpresa-ingurune egonkorra mantendu da, egitura makroekonomiko sendoari eta atzerriko inbertsioaren aldeko politikari esker. Hala ere, merkatuak txikia izaten jarraitzen du eta gaitasun mugatua du, langileen eskasia dela eta.
- Estatuaren kontrola eta jasangarritasuneko ikuspegia.** Gobernuak parte-hartze handia izaten jarraitzen du ekonomian, eta trantsizio berde eta digitalera bideratuta dago. Erregulazioen karga altua izan arren, herrialdeak erakargarria izaten jarraitzen du inbertsioarentzat, batez ere sektore estrategikoetan, besteak beste, energia berriztagarrietan.


Suediako ekonomiak hobera egin du kontsumo pribatuaren gorakadari esker. Hala ere, langabeziak oso altua izaten jarraitzen du eta gobernua ahula eta ezegonkorra da. Ingurumen-murrizketak areagotu egin dira



EKONOMIA



NAZIOARTEKO POLITIKA ETA HARREMANAK



ENPRESA GIROA



Hazkunde ekonomikoa

Moneta-politika eta inflazioa

Zerga-politika

- 2025ean BPGaren hazkundera berreskuratuko da.** 2025ean % 1,8ko hazkundera proiektatu da kontsumoaren gorakadaren ondorioz, eta atzean utziko ditu 2023ko eta 2024ko % 1etik beherako hazkunderak. Langabeziak oso handia izaten jarraituko du.
- Tasak murriztea inflazioa egonkortzeko.** Moneta-malgutzeko ziklo bat hasi da, pixkanakako murrizketekin. Koroa suediarra apur bat suspertzea aurreikusten da, hilabete batzuetan ahul egon ostean.
- Defizitaren beherakada.** Defizitak murrizten jarraituko du, ekonomia suspertu ahala gobernuak dirulaguntzak kenduko dituelako pixkanaka.

Egonkortasun instituzionala

Nazioarteko harremanak

- Gobernu ahula eta kanpo-babes ezegonkorra.** Kristerssonen gobernuak zailtasunak ditu 2026ko hauteskundeak iritsi arte boterean mantentzeko. Koalizioa Suedia Demokraten mende dago. Eskuin muturreko alderdia da hori eta horrek tentsioa areagotzen du.
- NAToko eta EBko posizioa indartzea.** 2024ko martxoan NATOn sartu zen Suedia eta kanpo-politika zorrotzagoa ezarri du. Heren bat handitu du gastu militarra 2024rako. Errusiarekiko harremanak okerrera egin du.
- Superabit komertzial indartsua.** Suediak superabit komertzial indartsua mantenduko du eta 2024rako BPGa % 7,00koa izango da, merkataritza-balantza sendoari eta lehen sektoreko diru-sarrerei esker.

Enpresa-ingurunea


Merkatuaren erregulazioa

- Agertoki nahiko egokia, baina arrisku geopolitikoek eragindako erronkekin.** 2024an egindako erreforma ekonomikoek finantzaketa-baldintzak hobetu dituzte. Hala ere, ingurune politikoa eta atzerriko inbertsioaren gaineko politikak okertu egingo dira apur bat, protekzionismo handiagoaren eta ezegonkortasun geopolitikoaren ondorioz.
- Atzerriko inbertsioarentzako erregulazioaren eta jasangarritasunaren hazkundera.** Zerga-politika eta ingurumeneko legedia zorrotzagoak izango dira, eta BEZak gora egingo du sektore garrantzitsuetan. Lan-politika murriztaileek eta zerga-karga altuek oztopo izaten jarraituko dute inbertsioa erakartzeko.


Belgikaren hazkunde ekonomikoak neurritsua izaten jarraituko du eta inflazioa altua izango da, soldaten indexatzearen ondorioz. Gobernua eratzeko dago oraindik 2024ko ekaineko hauteskundeen ostean



EKONOMIA



NAZIOARTEKO POLITIKA ETA HARREMANAK



ENPRESA GIROA



Hazkunde ekonomikoa

Moneta-politika eta inflazioa

Zerga-politika

- Hazkunde ekonomiko neurritsua.** 2024an BPGren hazkundearen desazelerazioa proiektatzen da (% 1,20), ekonomia esportazioen oso mende dagoelako (BPGren % 87) eta kanpo-eskaria oso ahulduta dagoelako.
- Soldaten indexatzeak inflazio altua eragin du.** Soldaten indexatze automatikoaren ondorioz, Belgikak eskualdeko tasarik altuenetako bat izan du 2024an (% 3,9). Hala ere, 2025 amaiera aldera % 2 inguruan egonkortzea espero da.
- Aurrekontu-defizit iraunkorra.** Soldaten indexatze automatikoaren ondorioz, gastu publikoa altu mantenduko da, soldatak, pentsioak eta langabezia-prestazioak inflazioarekin batera igoko baitira.

Egonkortasun instituzionala

Nazioarteko harremanak

- Gobernu zatituta eta ahultasun politikoa.** 2024ko ekaineko hauteskundeen ondoren, Alexander De Crook lehen ministro kargua utzi zuen eta Bart De Wever N-VAko liderra koalizioa eratzen ahalegindu da, baina oraindik ere ez da segurua.
- Aliantza sendoa EBrekin, Euro Eremuarekin eta NATOrekin.** Belgikak EBren, NATOren eta Euro Eremuaren kide garrantzitsu izaten jarraituko du eta bere nazioarteko harremanak erakunde horietan oinarritzen dira.
- Merkataritza-defizita 2024an eta susperraldia 2025ean.** 2024an Belgikak merkataritza-defizita izatea aurreikusten da, baina 2025ean, superabitera itzuliko da, lehen sektoreko diru-sarreraren igoerari esker.

Enpresa-ingurunea

Merkatuaren erregulazioa


- Aurrerapen txikiak enpresa-ingurune konplexuaren barruan.** Belgikak onurak izaten jarraitzen du bere merkataritzaren irekierari, kokapen estrategikoari (EB erdian) eta azpiegitura sendoari esker. Hala ere, erronka handiak ditu, besteak beste, zerga-sistema ez da oso erakargarria eta horrek atzerriko inbertsioa erakartzea zailtzen du.
- Estatuaren esku-hartzea eta erreforma mugatuak.** Estatuaren etengabeko esku-hartzeak markatzen du Belgikaren erregulazioaren panorama, kontrol-neurriak ezartzen baititu atzerriko inbertsioetan, batez ere, sektore estrategikoetan. Zerga-erreformak egin arren, adibidez, gutxieneko zerga korporatiboa % 15era igotzea, erregulazioak erronka izaten jarraitzen du.




2025ean Herbehereetako ekonomia pixkanaka suspertzea espero da, eskariaren gorakadari esker. Koalizio-gobernu berriak hainbat erronka ditu koalizioa eratzen duten alderdien arteko desberdintasun politikoak direla eta



EKONOMIA



NAZIOARTEKO POLITIKA ETA HARREMANAK



ENPRESA GIROA



Hazkunde ekonomikoa

Moneta-politika eta inflazioa

Zerga-politika

- **Ekonomiaren pixkanakako suspertzea.** 2024an BPGaren hazkundera % 0,6 ingurukoa izan ostean, 2025ean % 1,4ra igotzea espero da, barne- eta kanpo-eskariaren gorakadari esker.
- **Batez besteko inflazio handia 2024an gasaren prezioengatik.** 2024ko abuztuan Europako gasaren prezioek igoera handia izan zuten, inflazioaren batezbestekoa % 4,4koa izango da. Inflazioa 2025ean egonkortuko da, betiere gasaren prezioak berriro igotzen ez badira.
- **Defizit baxua 2024an eta igoera esanguratsua 2025ean.** 2025ean defizitak gora egitea espero da, gastu publikoaren gainean egindako prezioengatik. Izan ere, defentsako gastuak igo egin dira eta dirulaguntzak bideratu dira Groningengo lurrikarentzat.

Egonkortasun instituzionala

Nazioarteko harremanak

- **Koalizio-gobernu ahula eta porrot egiteko arriskua.** Herbehereetako koalizio-gobernu berrian lau alderdi daude eta erronka handiak dituzte haien arteko desberdintasun politikoak direla eta. Horrek areagotu egiten du lau urteko agintaldia ez betetzeko arriskua.
- **Jarrera kontraesankorrak EBN.** Koalizio-gobernuak jarrera mugatzaileagoa hartu du immigrazioari dagokionean eta Europako Itun Berdearen helburuekin lotutako konpromisoak murriztu ditu.
- **Merkataritzako superabitaren beherakada txikia.** Superabitak behera egingo du 2024an eta 2025ean, inportazioen gorakadaren ondorioz. Hala ere, Europako balantzerik onenetako bat izaten jarraitzen du. 2025ean, atzerriko inbertsioen fluxu handiagoak aurreikusten dira.

Enpresa-ingurunea

Merkatuaren erregulazioa

- **Enpresa-inguruneak oinarri sendoak ditu, baina erronka geopolitikoei egin behar die aurre.** Herbehereetako enpresa-inguruneak azpiegitura digital eta garraio-azpiegitura indartsua, laneku kualifikatua eta gaitasun berritzailea ditu. Hala ere, tentsio geopolitikoek ahuldu egin dute kanpo-merkataritza zein atzerriko inbertsioa.
- **Erregulazio zorrotzagoak segurtasuneko geroz eta arrisku handiagoen aurrean.** Inbertsio pribatuarekiko ikuspegi liberala izaten jarraitzen duen arren, segurtasun nazionalarekiko kezken ondorioz inbertsio-arauak gogortu dituzte. Gobernuak estatuaren esku-hartze maila txikia mantenduko du eta inbertsio berdea sustatzea izango du xede.



Urkixo zumarkalea, 36, 5. solairua. Bizkaia Plaza eraikina 48011
Bilbo info@basquetrade.eus
(+34) 94 403 71 60

basquetrade
.eus